



JAURLARITZAKO LEHENENGO LEHENDAKARIORDE ETA SEGURTASUNEKO SAILBURUA

Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak, 2022ko urriaren 20an egindako osoko bilkuran, orri-ertzean adierazitako kideak bertaratu direla, zure **kontsulta** aztertu du (185/2022 zenbakiarekin erregistratu da); hain zuzen ere, **Datu Pertsonalak Babesteari eta Datuak Babesteko Euskal Agintaritzari buruzko Legearen aurreproiektuaren gainekoa (Erref.: DNCG_LEY_6043/21_02)**.

Eztabaidatu eta gero, irizpen hau eman du, aho batez. Batzordearen iritzia adierazi dute Astigarraga Goenaga eta Beitia Ruiz de Arbulo batzordekideek.

LEHENDAKARIORDEA:

Xabier Unanue Ortega jauna.

BATZORDEKIDEAK:

María Teresa Astigarraga Goenaga andrea.

Iñaki Beitia Ruiz de Arbulo jauna.

Fátima Saiz Ruiz de Loizaga andrea.

Iñaki Calonge Crespo jauna.

María Jesús Urkiola Mendibil andrea.

María Lourdes Pérez Ovejero andrea.

Mirari Erdaide Gabiola andrea.

Jaione Juaristi Sánchez andrea.


IDAZKARIA:

Jesús María Alonso Quilchano jauna.

182/2022 IRIZPENA

AURREKARIAK	2
AURREPROIEKTUAREN DESKRIPZIOA	4
BATZORDEAREN ESKU-HARTZEA	9
PRESTATZEKO PROZEDURA	10
EKIMENAREN ERKIDEGO-, KONSTITUZIO- ETA ESTATUTU-ESPARRUA	17
I Europako arauak	18
II Konstituzio-esparrua	21
A) Lege organikoaren erreserba, gai lotuak eta oinarrizko eskubidearen egikaritzaren erregulazioa	22
B) Eskumen-alderdiak: EKren 149.1.1 artikulua	26
C) Estatutuaren eskumen-tituluak	32
LEGE-AURREPROIEKTUAREN AZTERKETA	34
I Ohar orokorrak	34





II	Artikuluari buruzko gogoetak	40
A)	I. kapituluak.- Xedapen orokorrak	40
B)	II. kapituluak.- Datuak Babesteko Euskal Agintaritzak	43
C)	III. kapituluak.- Zehapen-araubidea	64
D)	IV. kapituluak.- Datuak babesteko araudia urratuz gero aplikatzeko prozedurak	70
III	Araugintza-teknikako gogoetak	79
ONDORIOA		83

AURREKARIAK

- 2022ko uztailaren 28ko Aginduaren bidez (sarrera-data hurrengo egunean), Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuak kontsultara eraman du Datu Pertsonalak Babesteari eta Datuak Babesteko Euskal Agintaritzari buruzko Legearen aurreproiektua Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren aurrean.
- Bidaltze-agindu horrekin eta kontsultarako aurkezteko aurreproiektuaren testuarekin batera, dokumentu garrantzitsu hauek ageri dira igorritako espedientean.
 - Ebazpena, 2021eko maiatzaren 21ekoa, Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen zuzendariarena, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Legearen aurreproiektua jendaurrean jartzea adosten duena.
 - 2021eko urriaren 25eko aurretiazko kontsulta publikoaren izapidean Irekian egindako ekarpenak.
 - Agindua, 2021eko urriaren 27koa, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuarena, lege-aurreproiektua egiteko prozedurari hasiera ematen diona.
 - Memoria ekonomikoa, 2022ko urtarrilaren 13koa, Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen zuzendariarena.
 - Justifikazio-memoria teknikoa, 2022ko urtarrilaren 27koa, Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen zuzendariak sinatua.
 - Agindua, 2022ko urtarrilaren 31koa, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuarena, lege-aurreproiektuaren testua aldeztu aurretik onartzen duena.
 - Txosten juridikoa, 2022ko otsailaren 11koa, Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen Zuzendaritzarena.



- h) Justifikazio-txostena, generoaren ikuspegitik garrantzirik ez izateari buruzkoa, Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen zuzendaria sinatua, 2022ko otsailaren 18koa.
- i) Txostena, oharrak ez egiteari buruzkoa, 2022ko otsailaren 21ekoa, Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Zerbitzu Zuzendaritzarena.
- j) Antolamendu-txostena, 2022ko otsailaren 28koa, Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitaletako Zuzendaritzarena.
- k) Lan eta Enplegu Sailaren alegazioak, 2022ko martxoaren 2koak.
- l) Idazkia, oharrak ez egiteari buruzkoa, 2022ko martxoaren 2koa, Osasun Saileko Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorretako Zuzendaritzarena.
- m) Adostasun-txostena, 2022ko martxoaren 4koa, Emakunderena.
- n) Idazkia, oharrak ez egiteari buruzkoa, 2022ko martxoaren 8koa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Zerbitzu Zuzendaritzarena.
- o) Idazkia, oharrak ez egiteari buruzkoa, 2022ko martxoaren 11koa, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko Zerbitzu Zuzendaritzarena.
- p) Txostena, 2022ko martxoaren 28koa, Datuak Babesteko Euskal Bulegoarena.
- q) Alegazioak, 2022ko martxoaren 30ekoak, IZENPErenak.
- r) Txostena, 2022ko apirilaren 20koa, Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzarena.
- s) Idazkia, oharrak ez egiteari buruzkoa, 2022ko maiatzaren 2koa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saileko Zerbitzu Zuzendaritzarena.
- t) Memoria laburra, 2022ko maiatzaren 19koa, Kontrol Ekonomikoko Bulegoarentzat (KEB).
- u) Txostena, 2022ko uztailaren 6koa, Aurrekontu Zuzendaritzarena.
- v) Ofizioa, 2022ko uztailaren 8koa, Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen zuzendaria, Kontrol Ekonomikoko Bulegoari egindako txosten-eskaera berretsiz.
- w) Memoria laburra, 2022ko uztailaren 8koa, Kontrol Ekonomikoko Bulegoarentzat (KEB).



- x) Eranskina, 2022ko uztailearen 11koa, Aurrekontu Zuzendaritzaren txostenarena.
- y) Txostena, 2022ko uztailearen 18koa, Kontrol Ekonomikoko Bulegoarena.
- z) Arau-proiektua, 2022ko uztailearen 28koa.
- aa) Hausnarketak, 2022ko uztailearen 28koak, Autogobernu Zuzendaritzak datu pertsonalak babesteko aurreproiektuaren aplikazio-eremuari buruz IZENPE SAri egindakoak.
- bb) Arau-proiektuaren hirugarren bertsioa, 2022ko uztailearen 28koa.
- cc) Arau-proiektuaren laugarren bertsioa, 2022ko uztailearen 28koa.
- dd) Memoria laburra, 2022ko uztailearen 28koa, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarentzat.

AURREPROIEKTUAREN DESKRIPZIOA

3. Aurreproiektuak honako hauek ditu: zioen azalpena, 41 artikulua –lau kapitulutan sistematizatuak–, bi xedapen gehigarri, bi xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bat eta bi azken xedapen.
4. **Azalpen-zatia** lau epigrafetan egituratuta dago.
5. **Lehen epigrafeak** ekimena nahitaez zein arau-esparrutan garatu behar den identifikatzen du. Esparru hori, lehenik eta behin, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduak mugatzen du, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzkoa, eta 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen duena, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra deiturikoa.
6. Bigarrenik, ekimena biltzen duen beste arau-testua da Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, barne-zuzenbidea erregelamendu horretara egokitzeko asmoz emana.
7. Era berean, kontuan hartu behar da Europako Parlamentuko eta Kontseiluko 2016/680 (EB) 2016ko apirilaren 27ko Zuzentaraua, eskumena duten aginteei arau-hauste penalak prebenitzeko, detektatzeko, ikertzeko eta epaitzeko eta zigor-zehapenak betearazteko datu pertsonalei ematen zaien tratamenduari dagokionez pertsona fisikoak babesteari eta datuon zirkulazio askeari buruzkoa baita. Halaber, zuzentarauak Kontseiluaren 2008/977/JAI esparru-erabakia bertan behera uzten du.



8. Zuzentarau horren transposizioa maiatzaren 26ko 7/2021 Lege Organikoaren bidez egin da barne-ordenamendura. Lege Organiko hori arau-hauste penalak prebenitzeko, detektatzeko, ikertzeko eta epaitzeko eta zehapen penalak betearazteko tratatutako datu pertsonalak babesteari buruzkoa da.
9. Proiektuak –baieztatzen denez– deskribatutako arau-esparruan datuak babesteko oinarrizko eskubidea eratzen duten printzipio, eskubide eta betebeharren konfigurazio egokia du, eta horrek hau esan nahi du: «...eta, horrenbestez, ez dela beharrezkoa oinarrizko eskubidearen funtsezko edukiarekin lotutako xedapen gehigarririk hartzea».
10. Jarraian, zioen azalpenean kapitulu bakoitzaren edukiaren deskribapen sintetikoa egiten da, bakoitzaren alderdirik garrantzitsuena azpimarratuz.
11. **Bigarren epigrafean** I. kapitulua jasotzen da, legearen xedeari (hots, EAEko araudia deskribatutako esparru juridikora egokitzea) eta aplikazio-eremu subjektiboari buruzkoa, zeinak euskal sektore publikoko erakunde eta estatutupeko erakundeetan jartzen baitu arreta. Horiei gehitu behar zaizkie hiru erakunde-mailetako talde politikoak –erakunde erkideak, foralak eta tokikoak–, Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitateak eta haien mendeko erakundeak, bai eta zuzenbideko korporazioak eta sektore pribatuko erakunde jakin batzuk ere, betiere gauzatzen duten datu-tratamenduaren arabera, nola funtzio publikoak betetzeari edo zerbitzu publikoak emateari buruzkoak direlako hala Euskal Sektore Publikoko datuak tratatzeko ardura dagokielako. Xedearen mugaketak bazterketak ditu: hildakoei eta sailkatutako gaiei buruzko tratamenduak.
12. **Hirugarren epigrafeak** proiektuaren berrikuntza nagusietako bat jorratzen du: Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) datuen babesaren arloko erakunde-antolaketa berria: Datuak Babesteko Euskal Agintaritza (DBEA). Haren konfigurazioaren funtsezko piezak independentziaren zerbitzura aletzen dira, autoritate horien diseinu komunitario berriaren giltzarri.
13. Independentzia horren zerbitzura diseinatu da egitura berriaren araubidea, hainbat lege-aurreikuspenekin: botere publikoen esku-sartzeen mende ez jartzea, baliabide pertsonal, tekniko eta finantzarioen hornidura nahikoa, legez ezarritako izendapen-prozedura batean oinarritzen den independentzia duen lehendakaritza indartsu baten diseinua, botere legegilearen parte-hartzearekin, legegintzaldien epea gainditzen duen agintaldi-epea, legez tasatutako kargugabetze-arrazoiak, eta abar.
14. Jarraian, Datuak Babesteko Euskal Agintaritzari esleitzen zaizkion jarduketa-arlo berritzaileenak nabarmentzen dira: ikertzeko ahalak (horiek garatzeko, administrazio guztien laguntzeko eginbeharra ezarri da, zerga-administrazioa bereziki aipatuta); arautzeko ahal berria; kanpo-ekintzako subjektu izateari lotutako ahalak; datuen



nazioarteko transferentziei buruzko esku-hartzeak; jokabide-kodeak onartzeko ahalak; ziurtapen-erakunde edo -entitateak akreditatzeko ahalak; edo datu pertsonalen babesaren arloko prestakuntza-jarduerak garatzeko ahalak.

15. Apartatu horren amaieran, Datuak Babesteko Euskal Agintaritzak gainerako kontrol-agintaritzekin duen harremanaren funtsezko alderdiak aipatzen dira, lankidetzaren printzipioan oinarrituta.
16. **Laugarren epigrafeak** legearen eremu subjektiboan sartutako administrazio eta erakundeei ezarriko zaien zehapen-araubidea jorratzen du. Hori da Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorren berrikuntza handienetako bat –eta hura emateko arrazoietako bat–. Europar Batasun osoan zehapen-esparru uniforme bat ezarri nahi izan da horren bidez, hargatik erregelamendu horrek estatu kideei zenbait alderdi zehazteko uzten dien aukera eragotzi gabe.
17. Gune horretan, proiektuak subjektu pribatuentzat gordetzen ditu isun-zehapenak, eta subjektu publikoak, berriz, ohartarazpenekin, neurri zuzentzaileak ezartzearekin eta, hala badagokio, pertsona fisiko zehatzei ohartarazpenak egitearekin zehatuko dira – horiek guztiak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (EHAA) argitaratuko dira–, baita larritasun handieneko zehapenak ezartzearekin ere.
18. Zehapen-araubideak, halaber, kontuan hartzen du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko eta Instituzionaleko kargu publikodunen eta behin-behineko langileen etika- eta jokabide-kodea. Publizitateko araubide berezi bat aurreikusten da, herritarrek jakin dezaten sektore publikoan araudia zenbateraino betetzen den benetan eta betetze horretan zer desbideratze egon daitezkeen. EHAA-n nahitaez argitaratu behar diren kasu zehatz batzuk ezartzen dira.
19. Zehapen-araubidea zehapenen preskripzioaren erregulazioarekin amaitzen da.
20. **Bosgarren epigrafeak** datuen babeserako araudi berria aplikatzearen ondorioz gara daitezkeen prozedurak jorratzen ditu.
21. Azalpen-zatian, honako hauek zehazten dira: xedapen orokorrak, araubide juridikoa eta prozedura eteteko arrazoiak (1. atala), prozedura hasteko moduak (2. atala), onarpen-izapidearen berezitasunarekin, eta aurretiazko jarduketak.
22. Jarraian, labur-labur, hiru prozedura mota aipatzen dira: eskubideak baliatzearen ondoriozko erreklamazioetatik eratorritakoak, zehapen-prozedura eta mugaz gaindiko tratamenduei dagozkienak.
23. Azalpen-zatia amaitzeko, arauaren azken zatiaren deskribapen laburra egiten da, eta nabarmentzekoa da bigarren xedapen gehigarriak islatzen duen jarraitutasun-



printzipioa –Euskal Agintaritza berriak egungo Euskal Bulegoa ordeztzen du gai guztietan–, kontuan izanik estatutu berri bat onartu beharko dela nolahi ere.

24. Aurreproiektuaren **xedapenen atalean**, eduki biltzen da:
25. I. kapituluak, «Xedapen orokorrak» izenekoak (1. eta 2. artikulua), xedea eta aplikazio-eremua jorratzen ditu.
26. II. kapituluak, «Datuak Babesteko Euskal Agintaritza» izenekoak, 3.etik 23.era bitarteko artikulua biltzen ditu, eta sei ataletan egituratzen da.
27. 1. atalak, «Antolaketa eta Araubide Juridikoa» deiturikoak, (3. artikulutik 7.era), Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren izaera eta araubide juridikoa ezartzen ditu (3. artikulua), bai eta haren ekonomia- eta aurrekontu-araubidea (4. artikulua) eta langileen araubidea ere (5. artikulua). Halaber, bere eginkizunak eta ahalak jasotzen dira (6. artikulua), baita gardentasunaren arloko publizitate aktiboko eskakizun batzuk ere (7. artikulua).
28. 2. atalak, «Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren organoak» izenekoak (8. eta 9. artikulua), Agentziaren lehendakaritza nabarmentzen du (izan ere, haren ordezkaria denez gero, ebazpenak, zirkularrak eta jarraibideak emateko ardura du), Agentziaren izendapen- eta kargu-uzteen araubidea (8. artikulua) eta Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren Aholku Batzordea –Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren lehendakariari aholkuak emateko ardura duena (9. artikulua)– ezartzeaz gain.
29. 3. atalak, «Ikertzeko Ahala» deiturikoak (10.etik 14.era bitarteko artikulua), ikertzeko ahalmenaren eremua aurreikusten du (10. artikulua), horretarako eskumena duten langileak (11. artikulua), ikerketa-jardueraren irismena (12. artikulua). Gainera, laguntzeko eginbehar orokorra ezarri (13. artikulua) eta auditoretza-planak arautzen ditu (14. artikulua).
30. 4. atalak, «Arautzeko ahala» delakoak (15. artikulua), Datuak Babesteko Euskal Agintaritzak zirkularrak eman ditzakeela aurreikusten du, eta zirkular horietan finkatuko dela zer irizpideri jarraituko dien haren jardunak.
31. 5. atalak, «Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren beste eginkizun batzuk» deiturikoak (16.etik 20.era bitarteko artikulua), kanpo-ekintzaren subjektu gisa aztertzen du agentzia (16. artikulua), eta, ondoren, honako arlo hauetan dituen eskumenak ezartzen ditu: datuak nazioartean transferitzea (17. artikulua), jokabide-kodeak (18. artikulua), ziurtapena (19. artikulua) eta datu pertsonalen babeserako prestakuntza (20. artikulua).
32. 6. atalak, «Lankidetzaren datuak babesteko beste agintaritza batzuekin» izenekoak (21.etik 23.era bitarteko artikulua), lankidetzaren instituzionalaren printzipioa adierazten du (21.



artikulua), baterako auditoretza-planak aurreikusten ditu (22. artikulua) eta lankidetzara arautzen du mugaz gaindiko prozeduren esparruan (23. artikulua).

33. III. kapituluak, «Zehapen-araubidea» deiturikoak, 24.etik 29.era bitarteko artikulua biltzen ditu. Kapitulu horretan subjektu erantzuleak aipatzen dira (24. artikulua), igorpenengatiko arau-hausteak tipifikatzen dira (25. artikulua) eta aplikatzekoak diren zehapen eta hertsapen-isunak ezartzen dira (26. artikulua), bai eta EAEko administrazio, entitate eta erakunde publikoei aplikatu beharreko araubidea ere (27. artikulua). Halaber, zehapenen publikotasunaren eskakizuna jasotzen du (28. artikulua), bai eta zehapenen preskripzio-epeak ere, (EB) 2016/679 Erregelamenduan eta lege honetan edo maiatzaren 26ko 7/2021 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera (29. artikulua).
34. VI. kapituluak, «Datuak babesteko araudia urratuz gero erabili beharreko prozedurak» izenekoak, 30.etik 41.era bitarteko artikulua biltzen ditu eta bost ataletan egituratzen da.
35. 1. atalak, «Xehapen orokorrak» delakoak (30. eta 31. artikulua), kapitulu zein prozeduratan aplikatuko den ezartzen du (30. artikulua), bai eta prozedura eteteko arrazoiak ere (31. artikulua).
36. 2. atalak, «Prozedura hastea» izenekoak (32.etik 35.era bitarteko artikulua), honako hauek jasotzen ditu: erreklamatu gero egin beharreko izapideak (32. artikulua), erreklamazioak izapidetzeko onartzea (33. artikulua) eta izapideak ez onartzea (34. artikulua). Prozedura hasteko beste kasu batzuekin amaitzen da atala (35. artikulua).
37. 3. atalak, «Eskubideak baliatzearen ondoriozko erreklamazioen kasuan jarraitu beharreko prozedura» deiturikoak (36. artikulua), erreklamazio-prozedura izapidetzea agintzen du.
38. 4. atalak, «Zehatzeko ahala egikaritzeko prozedura» deritzonak (37.etik 39.era bitarteko artikulua), ezartzen du hasteko erabakia hartu aurretik Datuak Babesteko Euskal Agintaritzak alde aurreko ikerketa-jarduketak (37. artikulua), zehapen-prozeduraren izapidetzea (38. artikulua) eta kautela-neurriak (39. artikulua) erabaki ahalko dituela.
39. 5. atalak, «Berezitasunak mugaz gaindiko tratamenduei buruzko prozeduren kasuan» izenekoak (40. eta 41. artikulua), Mugaz gaindiko prozedurei aplikatu beharreko berezitasunak jasotzen ditu, prozedura horietan Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren agintaritzaren nagusia (40. artikulua), bai eta mugaz gaindiko prozedurei aplikatu beharreko berezitasunak ere, prozedura horietan Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren interesduna denean, baldin eta ukitu batek berari erreklamazioa egin badio (41. artikulua).



40. Lehen xedapen gehigarriak Datuak Babesteko Euskal Agintaritzak izapidetzen dituen baina lege honetan erregulatzen ez diren prozedurei aplikatu beharreko araudia aipatzen du.
41. Bigarren xedapen gehigarriak xedatzen du ordenamendu juridikoan Datuak Babesteko Euskal Bulegoari egiten zaizkion aipamenak Datuak Babesteko Euskal Agintaritzari buruzkoak izan behar direla.
42. Lehenengo xedapen iragankorrak Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren araubidea ezartzen du, haren estatutua eta organoak pixkanaka berritzea onartzen ez den bitartean.
43. Bigarren xedapen iragankorrak prozedurei aplikatu beharreko araubide iragankorra jasotzen du.
44. Xedapen indargabetzaileak indarrik gabe uzten ditu 2/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzkoa, lege hori garatzeko xedapenak eta lege honetan xedatutakoarekin kontraesanean edo aurka doazen edo bateraezinak diren maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.
45. Azken xedapenetatik lehenak baimena ematen dio Eusko Jaurlaritzari Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren Estatutua onartzeko, bai eta lege hau garatzeko behar diren erregelamenduzko xedapen guztiak onartzeko ere.
46. Azken xedapenetako bigarrenak xedatzen du EHAAAn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko dela indarrean.

BATZORDEAREN ESKU-HARTZEA

47. Irizpen hau nahitaezkoa da, eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 3.1 artikulua araberan ematen da; izan ere, artikulua horren a) apartatuan, Batzorde Juridikoari kontsultatu behar zaizkion gaien artean jasota daude «Lege-aurreproiektuak, horien edukia eta helburua direnak direla ere», eta kontsultagai dugun hau ez dago apartatu horretan zehaztutako salbuespenen artean.
48. Gogorarazi behar da, bestalde, etorkizuneko legeak indargabetu egingo duela 2/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzkoa, eta batzorde honek 24/2003 Irizpena eman zuela hura egiteko prozeduran.



PRESTATZEKO PROZEDURA

49. Batzorde honen doktrina errepikatua denez (beste askoren artean, 116/2021 eta 17/2022 irizpenak), prozedura-eskakizun orok betekizun edo oinarri material bati erantzuten dio. Horregatik, prozedura aztertzean, egiaztatu behar da izapidea funtsean betetzen dela, eta ez izapide formal hutsa. Egintzak edo arauak prestatzeko modua epaitzeko irizpidea beti hori bada, lege-aurreproiektuez ari garelarik, irizpide hori nabarmendu egiten da; izan ere, legeak egiteko ahalaren eta erregelamenduak egiteko ahalaren arteko desberdintasun muturrekoak eskakizun hori nabarmenki baldintzatzen du –legegileak ez du Konstituzioa gauzaten, egiten duena hark ematen duen esparruaren barnean askatasunez eskubidea sortzea da; izan ere, arau arloko eskumena gauzatzera «Konstituzioari eta legee jarraikiz jarduten da» (Espainiako Konstituzioaren 97. artikulua) (besteak beste, 209/1987 KAE eta 55/2018 KAE)–.
50. Prozeduraren azken emaitza lege bat izango denean, aurreproiektua egiterakoan gobernuak jarraitu duen bidea aztertzen da –salbuespen kualifikatuak alde batera utzita, denek, 17/2022 Irizpena–, ez haren baliozkotasuna arriskuan jartzen duten akatsak saihesteko, baizik eta Legebiltzarrera erregulazio arrazionala –hausnartutako erabaki baten emaitza– eta arrazoizkoa –gure ordenamenduaren jarraibide axiologikoei jarraikiz– irits dadin.
51. Horregatik hedatu da lege-aurreproiektuetara ere Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legeak (XOEPL) xedapen orokorretarako ezarritako metodologia bera. Onartu berri den Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legeak erregimen-unitateari eusten dio (3. artikulua).
52. Halaber, hori du azken helburutzat batzordearen azterketak, lege-aurreproiektuak egiteko prozesua behatzen baitu, ekimenari buruzko epai juridikoa osatzeko behar bestekoa den prozedura-edukia gordetzeko –helburuen egokitasunari dagokiona eta proposatutako eduki arauemailea barneratzen dituen–.
53. Betiere ikuspegi material horren barruan, batzordeak honako hauek aztertzen ditu: organo sustatzailean prestatzeko fasea –kontuan hartu dituen premisa faktikoak eta juridikoak, lehen testua egin aurreko hausnarketa–; hartzaileek eta eragindako sektoreek parte hartzeko prozeduraren hasiera-fasea –zer iritzi eman duten, zer proposamen egin dituzten, eta onartzeko edo baztertze arrazoiak–; egin beharreko arauaren eragina euren jardunean nabaritzen duten administrazioen parte-hartzea (eta balorazioa); eta, arauak diotenaren ondorioz, eta dauzkaten ezaugarri kualifikatuak oinarri hartuta, egin asmo den testu arauemaileaz irizpena emateko eginkizuna egokitu zaien organoen esku-hartzea.



54. Prozeduraren azterketan, halaber, ikusten da prestatzean kontuan hartu ote diren egin asmo den arauketaren egingarritasuna kasuan-kasuan baldintzatzen duten faktoreak – ea aztertu diren haren aplikazio-aukerak, haren benetako ahalmena xede diren ondorioak lortzeko–, eta, alderdi horretan, arreta berezia jartzen zaio eragin ekonomikoa ebaluatzeko moduari: arauak administrazioei eskatuko dien ahalegin publikoa bezala, ahalegin pribatua ere neurtzen da –arauaren izaeraren ondorioz beharrezkoa izatera–. XOEPLren 10.3 artikuluan erabilitako hitzetan, *in fine* zera ebaluatuko da: «bere aplikazioak beste administrazio batzuentzat, partikularrentzat eta, oro har, ekonomiarentzat ekar dezakeen kostua».
55. Irizpide horiekin, Datu Pertsonalak Babesteari eta Datuak Babesteko Euskal Agintaritzari buruzko Legearen aurreproiektuaren testua ekarri duen prozedura aztertuko dugu.
56. Organo sustatzaileak egindako prestaketa-fasean, bidalitako espedienteak honako hauek jasotzen ditu:
- Aldez aurreko kontsulta 2021eko maiatzaren 26tik ekainaren 22ra bitartean egitea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen (APEL) 133.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, egoitza elektronikoko iragarki-oholean jarritako iragarki baten bidez. Iragarki horrek herritarren hainbat ekarpen eragin ditu.
 - Prozedura hasteko Agindua, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuarena, 2021eko urriaren 27koa, XOEPLren 5.1 artikuluan aldez aurretik ezarritako edukiarekin. Agindu horren helburuaren arabera, araua egiteko prozesua gidatuko duten jarraibideak eta ekimenaren oinarri diren arrazoiak identifikatzen dira –funtsean, 2/2004 Legea eta hura garatzeko arauak datuen babesaren arloan emandako Europako eta Estatuko araudira egokitzeko premia atzeraezina, gorago aipatu dena–.
 - 2022ko urtarrilaren 13an memoria ekonomikoa eta urtarrilaren 27an justifikazio-memoria egitea.
 - Lege-aurreproiektuaren aldez aurreko onespina, 2022ko urtarrilaren 31koa, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuarena (XOEPLren 7.1 artikulua). Izapidearen helburuari jarraikiz, testu horretan ekimena Jaurlaritzari helarazteko eskumena duen organoaren hasierako jarrera jasotzen da [ekainaren 30eko 7/1981 Legea, Gobernuarena, 18.a) artikulua].
 - 2022ko otsailaren 7an Eusko Legebiltzarrari hasierako eta aurretiazko onespeneko aginduak bidaltzea, ekimenaren testuarekin batera, Jaurlaritzaren ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 56. artikuluan ezarritakoa betez.



- f) Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen Zuzendaritzak 2021eko otsailaren 11n txosten juridikoa egitea (XOEPLren 7. artikulua). Txostenak aurreproiektua egiteko jarraitu behar diren oinarritzko jarraibideak gogorarazten ditu, eskumen-euskarria eta oinarri objektiboa aztertzen ditu, proposatutako edukia analizatzen du aplikagarri den esparru juridikoaren argitan, hura esparru juridikoarekin bat datorrela ondorioztatzen du, eta testua hobetzeko hainbat gogoeta eta iradokizun egiten ditu. Bertan, enpresan duen inpaktuaren txostena jasotzen da (Euskadiko ekintzaileak eta enpresa txikiak babesteari buruzko ekainaren 28ko 16/2012 Legearen 6. artikulua), eta bertan ondorioztatzen da ez duela inpakturik izango enpresen eraketan, abiaraztean eta funtzionamenduan.
- g) 2022ko otsailaren 18an, genero-ikuspegitik garrantzirik ez izatearen txosten justifikatzailea egitea, generoaren araberrako inpaktuaren alde aurretiko ebaluazioa gauzatzeari eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ekidin eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeari buruzko jarraibideen lehenengo jarraibidearen 2.a) puntuan ezarritakoaren esparruan (40/2012 Ebazpena, abuztuaren 21ekoa).
57. Ikusten da, beraz, organo sustatzailearen barruan hasierako lanketa eta gogoeta egokia dagoela proiektaturiko erregulazioaren oinarri faktiko eta juridikoei buruz.
58. Alabaina, adierazi egin behar da ekimenak edukia kualifikatzen duen zirkunstantzia bat duela –zehatzago esanda, duen aukera–; izan ere, ondoren xehetasunez azaltzen den bezala, arau-erabaki gehienak erkidegoko araugileak edo, hala badagokio, araugile organikoak hartu ditu alde aurretik.
59. Horregatik, justifikazio-memoria luzetik aski da orain oinarritzko lau ideia berreskuratzea ekimenaren funtsa deskribatzeko: (I) aurreproiektuak ordeztu egiten du indarrean dagoen 2/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoa (aurrerantzean, 2/2004 Legea); (II) eragiketa hori saihestezina da, honako hauen onespina kontuan hartuta: Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra, abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa, eta maiatzaren 26ko 7/2021 Lege Organikoa, arau-hauste penalak prebenitzeko, detektatzeko, ikertzeko eta epaitzeko eta zehapen penalak betearazteko tratatutako datu pertsonalak babesteari buruzkoa; (III) ekimenaren eduki potentziala zehaztean, irizpide nagusitzat hartzen da datu pertsonalak babesteko oinarritzko eskubidearen araubidea behar bezala araututa dagoela aipatutako arauetan, eta, ondorioz, ez da beharrezkoa proiektatutako testuak oinarritzko eskubidearen benetako edukiarekin lotutako xedapen gehigarriak jasotzea, ez eta datuen tratamenduen arduradunentzat mugatutako betebeharrekin zerikusia duenik ere; (IV), beraz, ekimenak esparru



instituzional berria –Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaz– eta hark aktiba ditzakeen ahalak arautuko ditu, baita ahal eta eskumen horiek jarduteko prozedurak ere.

60. Prozedura entzunaldirako eta partaidetzarako irekitzeko faseari dagokionez (XOEPLren 8. eta 9. artikulua), etorkizuneko arauaren aplikazio-eremuan sartzen diren erakunde publiko eta pribatuak honako izapide hauek egin behar dituzte:
61. Foru- eta toki-administrazioei dagokienez, ezin da baztertu ekimenak iraun duen bitartean harremanak edo bilerak izan direnik, baina, egia esan, komenigarria izango litzateke espedientera administrazio horien iritzia ekartzea –eta, haien bitartez, dagozkien sektore publikoena–, zuzenean eragiten baitiete.
62. Ildo beretik, ez da dokumentatuta geratzen zuzenbide publikoko korporazio, UPV/EHU edo EAeko unibertsitate-sektorea osatzen duten gainerako unibertsitateen –guztiak ere erregulazio berriaren aplikazio-eremu subjektiboan sartuta– lanketa-prozedurarako deia. Ez eta, azkenik, erregulazioak eragindako gainerako estatutu-erakundeena ere – aurreproiektuaren 2.1 artikulua–, ezta bertan aipatzen diren talde politikoena ere.
63. Aplikazio-eremu subjektiboan sartutako entitate eta erakunde batzuen iritzia Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren Kontseilu Aholku-emailearen bidez jaso zitekeen (2/2004 Legearen 16. artikulua). Kontseilu horrek honako hauen presentzia du: lurralde historikoetako ordezkari bat, toki-erakundeetako beste bat –EUDELe izendatua– eta informatikan eta oinarrizko eskubideen arloan adituak diren bi pertsona –UPV/EHUK izendatuak, EAeko zuzenbide publikoko korporazioei kontsulta egin ondoren–. Aholku-organo horren lege-erregulazioa aintzat hartuta, sinesgarria da pentsatzea ekimena sortu bitartean kontseilu horri helarazi zaiola noizbait.
64. Kontseiluak behin eta berriz errepikatzen du beti zein positiboa eta garrantzitsua den, arau-ekimeneen egokitasuna eta egingarritasuna sendotze aldera, ukitutako pertsonen iritzia ezagutzea eta, hala badagokio, eragindako interesak ordezkatzeko dituzten erakundeena, baita beste hainbat pertsona eta erakundeena ere, garatzen duten jarduerarengatik edo erregulazioaren xede den gaiari buruz duten ezagutza bereziarengatik etorkizuneko erregulazioa aberastuko duten ikuspegi baliotsuak izan ditzaketelako.
65. Hala ere, kasu honetan, zehaztu egiten da entzunaldiaren eta parte-hartzearen faseei buruzko aurreko balorazioa; izan ere, prozedura-azterketan nagusitzen den benetako ikuspegian, aurreproiektuak lotura estua du Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrarekin eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoarekin (aurrerantzean, 3/2018 LO) eta Arauhauste penalak prebenitzeko, detektatzeko, ikertzeko eta epaitzeko eta zehapen penalak betearazteko tratatutako datu pertsonalak babesteari buruzko maiatzaren



26ko 7/2021 Lege Organikoarekin (aurrerantzean, 7/2021 LO), eta horrek murriztu egiten du ukituen zirkuluaren ekarpenen edo iradokizunen ondorioz testua modulatu edo aldatu ahal izateko dagoen aukera.

66. Prozedura Administrazio Orokorretik kanpo modu murriztean irekitzea ez dator bat aurreproiektua Eusko Jaurlaritzako sailei helaraztearekin.
67. Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (22.02.21), Osasun Sailak (22.03.02), Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak (22.03.08), Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak (22.03.02) eta Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak (22.05.02) adierazi dutenez, ez zuten inolako gogoetarik egin beharrik.
68. Lan eta Enplegu Sailak zuzenbide pribatuko erakunde publikoak zehapen-araubidean nola kokatzen diren argitzeko beharra planteatu du.
69. Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak txosten bat egin du Ziurtapen eta Zerbitzu Enpresa-Empresa de Certificación y Servicios, IZENPE, S.A. erakundeak agerian jarritako arazoei buruz. Irtenbiderik zuzenena zein den arrazoitu da, erakunde horrek aplikazio-eremu subjektiboa barne hartzen duela behar bezala islatzeko, eta hori Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 1eko 3/2022 Lege berria kontuan hartuta egin ahal izango da.
70. Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen zuzendariaren **2022ko otsailaren 18ko Ebazpenaren** bidez, ekimena jendaurrean jarri zen. Ebazpen hori martxoaren 2ko EHAAAn argitaratu zen (44. zk.), eta, era berean, aurreproiektuaren testua egoitza elektronikoa eta Legegunean argitaratu zen, 2022ko martxoaren 3tik 30era bitartean.
71. Nahitaezko txostenei dagokienez, **2022ko martxoaren 4an, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak** egiaztatu zuen, ekimenaren edukia kontuan hartuta, salbuetsita dagoela Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 21. artikuluan ezarritako generoaren araberrako inpaktuari buruzko txostena egitetik.
72. 2022ko apirilaren 18an **Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzak** txostena egin zuen, azaroaren 6ko 233/2012 Dekretuaren (xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duenaren) arabera egina.
73. Txostenak planteatzen du komenigarria dela Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren Kontseilu Aholku-emailearen erregulazioan hizkuntza ofizialen –eta genero-berdintasunaren– aipamena sartzeari; azkenean, organo sustatzaileak ez du



iradokizun hori onartu, uste baitu alderdi horiek «zeharkako bokazio nabarmena» dutela, eta berariazko erregulazioak dituztela, eta ez dela beharrezkoa sektoreko arauetan gai horiek arautzen dituzten xedapenak sartzea.

74. 2022ko otsailaren 28an, **Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitaletako Zuzendaritzak** txostena egin zuen, eta positiboki baloratu zituen aurreproiektua eta egungo araubidean sartutako berrikuntzak; hala ere, ez dator bat Datuak Babesteko Euskal Agintaritzari gardentasunaren eta informazio publikoa eskuratzearen arloko eskumenak esleitzearekin.
75. **Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren** txostena dago; bertan, Bulegoak positibotzat jotzen du ekimena, baina testua hobetzeko zenbait eduki sartzea iradokitzen du –hala nola titulua egokitzea, agintaritza epaiketetan ordezkatzeko eta defendatzeko araubideari buruzko aurreikuspena, araubide iragankorra edo indargabetzailea–.
76. Ez dago jasota **Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren Funtzio Publikoko Zuzendaritzaren** txostena, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 6.1.a) artikuluan jasota dagoena, zeinak aurreproiektuaren edukietan «funtzio publikoa» gaian zuzenean edo zeharka eragiten dutenak azertu behar dituen.
77. Inpaktu ekonomikoaren balorazioari dagokionez, adierazi dugun bezala, organo sustatzaileak **memoria ekonomiko** bat prestatu du. Memoria hori egungo egoeraren eta proiektatutakoaren arteko alderaketatik abiatzen da, eta, laburbilduz, honako hau ondorioztatzen du: (I) lege berriaren eremu subjektiboa osatuko duten erakundeen kopurua nabarmen handitzea, zeinak Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren kontrolpean geratuko baitira; (II) arau-hauste penalak prebenitzeari, detektatzeari, ikertzeari eta epaitzeari eta zehapen penalak betearazteari lotutako datu pertsonalen tratamenduak zabaltzea (7/2021 LO), helburu horiekin lotutako tratamenduak agentzia horren mende jartzea dakarrena –bideozaintzako kameretatik edo espetxeen kontrolerako kameretatik edo trafikoaren esparrukoetatik datozenak–; eta (III) agentziaren funtzioak eta ahalak zabaltzea –ikuskapena, kontrola, aholkularitza, araudia, kanpo-ekintza, datuen nazioarteko transferentziak, jokabide-kodeak, prestakuntza eta lankidetzeta–.
78. Hautemandako aldaketen ondorioz, eragin ekonomiko nagusia giza baliabideen eta baliabide materialen arloan izango da. Abokatuaren/instruktorearen/ikuskatzailearen bost lanpostu tekniko gehitzea aurreikusten da Aholkularitza Juridikoaren eta Ikuskaritzaren arlorako, informatikako teknikari lanpostu berri bat Arrisku Teknologikoen Ebaluazio eta Azterketa Unitatean eta bi administrari lanpostu kudeaketa ekonomikorako eta giza baliabideetarako. Langile-egitura handitzeaz gain, ekipamenduan inbertsio handiagoa egingo da –«ziur aski, egoitza berri bat gaituko da»–.



79. Aurreikusitako lanpostu-zabalkuntzaren eraginez, «2022ko ekitaldirako aurreikusitako langile-gastuak (1.639.648 €) areagotu egingo dira 615.627,12 eurotan», eta funtzionamendu-gastuetarako zuzkidurari 499.600 euro gehitu beharko zaizkio.
80. Diru-sarrerei dagokienez, uste da «zehatzeko ahalmena baliatzeak nabarmen areagotu ditzakeela haiek, baldin eta sektore publikoko kideek zorrotz betetzen ez badute datuen babesaren alorreko araudia».
81. Halaber, beste administrazio publiko batzuentzako kostuari dagokionez, «aurreproiektuak, printzipioz, ez du kostu berririk ezartzen euskal sektore publikoan, baina, edonola ere, memoria hau idaztean ezinezkoa da kostu horiek kuantifikatzea, baldin badaude»; era berean, dirudienez ez dago «kostu erantsirik herritarrentzat eta, oro har, ekonomiarentzat, aurreproiektuak ez baitu aldatzen DBEAk herritarrekin duen harremana». Azkenik, adierazienez, «...aurreproiektuak ez du aldatzen DBEA ondare-araubidea, ez aurrekontuak egiteko eta kudeatzeko prozedura, ez zuzenbide publiko eta pribatuko diru-sarreraren araubidea, ez eta sustapen-jarduera ere».
82. 2022ko uztailaren 6an, **Aurrekontu Zuzendaritzak** txostena egin zuen, eta ondorioztatu zuenez, «lege-aurreproiektuari buruzko memoria ekonomikoan ageri diren xedapenek ezin dute, inola ere, aurrekontu-konpromisorik sortu, urteko Aurrekontu Orokorretan bakarrik jasotzen baitira horiek; beraz, lege hori egikaritu eta garatzeko urteko zuzkidurak EAEko Aurrekontu Orokorren legeek xedatutakoaren arabera izan beharko dira, eta, behar izanez gero, aurrekontu-aldaketa egokiak egin beharko lirateke, DBEA beharrezko dituen baliabidez hornitzeko».
83. **2022ko uztailaren 18an, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak** (KEB) txostena egin zuen. Txosten horrekin, Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomia-kontrolari eta kontabilitateari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen 2/2017 Legegintzako Dekretuan, urriaren 19koan, xedatutako ekonomiaren eta arauen kontrola gauzatzen da, derrigorrean.
84. Txostenak, antolamendu-alderdiak baloratzean, uste du Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren berriaren lege-konfigurazioak errespetatu egin beharko lukeela Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legean ezarri berri den euskal sektore publikoaren lege-erregulazioa, eta ondorioztatzen du kontrako iritzia eman behar zaiola «aurreproiektuak DBEAri dagokionez egiten duen konfigurazioari, alegia, 3/2022 Legeak ezarri berri duen EAEko Sektore Publikoaren erakunde-diseinutik kanpo uzteari, eta, gainera, EAEko agintaritzaren administratibo independenteentzat legez diseinatutako eredutik aldentzea beharrezkoa edo arrazoizkoa dela ondorioztatzearen behar besteko oinarririk ez jasotzearen espedientean».
85. Gainerako alderdiei dagokienez –aurrekontu-, ondare- eta finantza-kontrolerako araubidea eta ekonomia- eta aurrekontu-eragina–, txostenak ez du kontrako iritzirik ematen.



86. Azken memoria bat dago (XOEPLren 10.2 artikulua), zeinetan prozeduraren aurrekariak, justifikazioa eta mugarririk garrantzitsuenak deskribatzen baitira, eta organo sustatzailea ados ez dagoen txostenetan planteatutako alderdiei erantzuna ematen baitzaie.
87. Ildo horretan, uste da ez dagoela eragozpen objektiborik Datuak Babesteko Euskal Agintaritzak gardentasunaren arloko eskumenak ere egikaritu ahal izateko, baina gai horri gardentasunari buruzko etorkizuneko legean heldu beharko zaio –2022ko apirilaren 21eko Ebazpenaren bidez jarri da jendaurrean–.
88. Orobat, organo sustatzailea ez dator bat Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren iritziarekin, eta uste du –aipamenak: Estatu Kontseiluaren 274/2015 Irizpena, sektore publikoaren araubide juridikoaren lege-aurreproiektuari buruzkoa, eta Batzordearen 128/2015 Irizpena, euskal sektore publikoaren antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko lege-aurreproiektuari buruzkoa– Datuak Babesteko Euskal Agintaritza ez dela Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen 10. artikulua eremuan sartu behar, 4. artikuluan baizik, esanbidez aipatu ez bada ere.
89. Datuak Babesteko Euskal Agintaritza eratzea beharrezko eta arrazoizkoa ote den justifikatzeari dagokionez, aipatutako maiatzaren 12ko 3/2022 Legean agintaritza independenteentzat aurreikusitako ereduari jarraitu gabe, Gardentasunari, Partaidetzari eta Gobernu Onari buruzko Legearen aurreproiektuari buruzko 129/2015 Irizpena aipatzen da, aurreproiektuan bulegoa eratzeko erabiltzen diren ezaugarri bereizgarriak berrikusten dira eta Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrean kontrol-agintaritzei eskatzen zaien independentzia gogorarazten da.
90. Justifikazio horri dagokionez, eta ekimena lege-eredutik aldentzen denez, komenigarria litzateke justifikazio hori osatzeko Datuak Babesteko Euskal Agintaritza berria erakunde autonomoaren figurara edo, hala badagokio, zuzenbide pribatuko erakunde publikoaren figurara egokitzea eragozten duten arrazoi zehatzak azaltzea.
91. Proiektatutako testuaren inguruabarrak kontuan hartuta, egindako izapidetaren azken balorazioa positiboa da, XOEPLn ezarritako eskakizunak behar bezala bete baitira.

EKIMENAREN ERKIDEGO-, KONSTITUZIO- ETA ESTATUTU-ESPARRUA

92. Aurreproiektuak bultzatzen duen funtsezko arrazoia da EAEn datuen babesaren arloan indarrean dagoen araudia (2/2004 Legean jasotakoa) eguneratzea, onartu zenetik izan diren arau-aldaketei dagokienez.
93. Aipatu dugun bezala, aldaketa horiek, hasieran, Europako bi arautan dute jatorria: Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrean eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/680 (EB) Zuzentarauan (pertsone fisikoak



babesten dituen datu pertsonalen tratamenduari dagokionez eskumeneko autoritateen arteko datuon zirkulazio askerekin lotuta prebentzio, ikerketa, detekzio, arau-hauste penalen auzipetze edo zigor penalen egikaritzearekin lotutako helburuetarako, eta Kontseiluaren 2008/977/JAI Esparru Erabakia bertan behera uzten duena). Ondoren, Estatuko bi arautan oinarritzen dira aldaketak: abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan (Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa), eta maiatzaren 26ko 7/2021 Lege Organikoan, maiatzaren 26koa (Arau-hauste penalak prebenitzeko, detektatzeko, ikertzeko eta epaitzeko eta zehapen penalak betearazteko tratatutako datu pertsonalak babesteari buruzkoa).

I EUROPAKO ARAUAK

94. Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunaren 8. artikulua datu pertsonalak babesteko eskubidea finkatzen du, eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren (EBFT) 16. artikulua, halaber, eskubide hori Batasunaren printzipioen artean sartzen du, eta Europako Parlamentuari eta Kontseiluari eskumena ematen die «legegintzako prozedura arruntaren arabera pertsona fisikoak babesteko arauak ezartzeko, Batasuneko instituzio, organo eta organismoek, bai eta estatu kideek ere, Batasuneko Zuzenbidearen aplikazio-eremuan sartzen diren jarduerak gauzatzean datu pertsonalak tratatzeari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez».
95. Oinarri horiei dagokienez onartu zen Europako Parlamentuaren eta Batzordearen 2016/679 (EB) Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa eta 95/46/EE Zuzentaraua (aurrerantzean, DBEO) indargabetzen duena.
96. Erregulazio hori Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/680 (EB) Zuzentarauarekin osatu zen. Zuzentarau hori pertsona fisikoak babesteari eta datuon zirkulazio askeari buruzkoa da, eskumena duten agintariek arau-hauste penalak prebenitzeko, detektatzeko, ikertzeko eta epaitzeko eta zigorzehapenak betearazteko datu pertsonalei ematen zaien tratamenduari dagokionez. Gainera, indargabetu egiten du Kontseiluaren 2008/977/JAI Esparru Erabakia, estatu kideek transposizioa egin behar diotena (aurrerantzean, 2016/680 (EB) Zuzentaraua).
97. Aurretiazko gai gisa, azpimarratu behar da, data berean (2016ko apirilaren 27an) onartu baziren ere, DBEOk izaera pertsonaleko datuen babesaren arloko erregulazio orokorra jasotzen duela, eta (EB) 2016/680 Zuzentaraua, berriz, arau-hauste penalak prebenitzea, ikertzea, detektatzea edo epaitzea edo zigorzehapenak betearaztea helburu duten datuen tratamenduen erregulazio espezifikoaz arduratzen dela.



98. Arau bakoitzaren aplikazio-eremuak desberdinak dira, eta hala adierazten du berariaz DBEOk; izan ere, DBEOren hemeretzigarren kontuan hartuzkoan eta 2.2.d) artikuluan zehazten denez, erregelamendu hori ez zaie aplikatu behar Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/680 (EB) Zuzentarauan aurreikusitako helburuetara bideratutako tratamendu-jarduerei.
99. DBEOri dagokionez, hamahirugarren kontuan hartuzkoak adierazten duen bezala, «Batasun osoan pertsona fisikoen babes maila koherentea bermatzeko eta barne-merkatuan datu pertsonalen zirkulazio askea zailduko duten desberdintasunak saihesteko, beharrezkoa da operadore ekonomikoei (mikroenpresa eta enpresa txiki eta ertainak barne) segurtasun juridikoa eta gardentasuna emango dien erregelamendu bat; erregelamendu horrek, halaber, eskubide-maila bera eman behar die estatu kide guztietako pertsona fisikoei, eta erantzukizun-maila bera datuen tratamenduaren arduradun eta eragileei, hartara bermatzeko estatu kide guztietan koherentea dela datu pertsonalen tratamenduaren ikuskapena, baliokideak direla zigorrak, eta eraginkorra dela estatu kideetako kontrol-agintaritzen arteko lankidetzaz».
100. DBEO nahitaezko araua da bere elementu guztietan, eta zuzenean aplikagarria estatu kide guztietan (EBFTren 288. artikulua).
101. Hain zuzen ere, jurisprudentzia sendo baten arabera, Estatu Kontseiluak Datu Pertsonalak Babesteko Lege Organikoaren aurreproiektuari buruzko 757/2017 Irizpenean (EKI) gogorarazten duen bezala, erregelamenduak zuzenean aplikatzeko, beharrezkoa da horiek indarrean jartzea eta eskubideen subjektuen alde edo aurka aplikatzea inolako zuzenbide nazionalen sartzeko neurririk hartu beharrik gabe; are gehiago, estatu kideak behartuta daude, EBFTtik ondorioztatzen diren eta hori berrestean beren gain hartu dituzten betebeharren arabera, erregelamenduen berezko eragin zuzena ez oztopatzeraz. Gainera, «betebehar hori zorrotz errespetatzea» ezinbesteko baldintza da Europar Batasuneko erregelamenduetan jasotako arauak «aldi berean eta uniformeki aplikatzeko» (besteak beste, Europar Kontseiluaren Justizia Auzitegiaren Epaiak hauek: 1973ko urriaren 10ekoa, Variola, 10. apartatua; 1977ko otsailaren 2koa, 50/76, Amsterdam Bulb, 5. eta 6. apartatuak; 1978ko urtarrilaren 31koa, Zerbone, 94/77, 24. eta 25. apartatuak; 1985eko martxoaren 28koa, Batzordea/Italia, 272/83, 26. apartatua; eta Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren Epaiak hauek: 2011ko uztailaren 14koa, Bureau national interprofessionnel du Carnac, C4/10 eta C27/10, 66. apartatua; eta 2012ko azaroaren 15ekoa, Al-Aqsa/Batzordea, C- 539/10 P, 87. apartatua).
102. DBEO estatu kide guztietan zuzenean aplikatzekoa den heinean –transposizioko barne-arauen beharrik gabe–, oro har, beharrezkoa izango da Europar Batasuneko araudi berriarekin bateraezinak diren arau nazionalak indargabetzea.
103. Hala ere, kasu batzuetan, litekeena da erregelamenduetan beraietan onetsita edukitzea estatu kideek Europako araudia osatu edo argitzeko xedapenak hartzeko aukera.



104. Aipatutako EKlan gogorarazten den bezala, aukera hori berariaz onesten du Europako Erkidegoko jurisprudentziak: «nahiz eta, erregelamenduen izaeraren beraren eta Europako Erkidegoko zuzenbidearen iturrien sisteman duten funtzioaren arabera, xedapenek, oro har, berehalako eragina duten ordenamendu juridiko nazionaletan, agintari nazionalak aplikazio-neurriak hartu beharrik gabe, xedapen batzuk betearazteko baliteke beharrezkoa izatea estatu kideek aplikatu beharreko neurriak hartzea» (Europar Kontseiluaren Justizia Auzitegiaren Epaia, 2001eko urtarrilaren 11koa, Monte Arcosu, C-403/98, 26. apartatua); eta, zehazkiago, erregelamendu bat zuzenean aplikatzeko aukera ez dago «Europako Erkidegoko erakunde bati edo estatu kide bati aplikazio-neurriak emateko ahalmena ematearen aurka» (Europar Kontseiluaren Justizia Auzitegiaren Epaia, 1979ko irailaren 27koa, Eridiana, 230/78, 34. apartatua).
105. DBEOren kasuan, zortzigarren kontuan hartuzkoak aukera horren berri ematen du, eta, are gehiago, nolabaiteko malgutasuna aitortzen die eginkizun hori betetzen duten arau nazionalari; izan ere, «Erregelamendu honek bere arauak estatu kideen zuzenbideak zehaztu edo mugatu behar dituela ezartzen duen kasuetan, estatu kideek Erregelamendu honetako elementuak sar ditzakete beren zuzenbide nazionalan, koherentziagatik beharrezkoa den neurrian eta xedapen nazionalak beren jasotzaileentzat ulergarri izan daitezkeen».
106. Alde batera utzita DBEOren 6.2 artikulua mantentzeko edo sartzeko baimena ematen duten xedapen espezifikoak, tratamenduaren zilegitasunari buruzkoak, edo 23.1 artikulua babesean legegintzako neurrien bidez har daitezkeen betebeharreari eta eskubideei buruzko mugak, honako berariazko gaitzuntzek garrantzi handia dute gure azterketarako: (I) 51.1 artikulua –«Estatu kide bakoitzak erabakiko du agintaritzaren publiko independente baten edo gehiagoren erantzukizuna izango den erregelamendu honen aplikazioa gainbegiratzea, tratamendua dela-eta pertsona fisikoen oinarrizko eskubide eta askatasunak babesteko eta Batasunaren barruko datu pertsonalen zirkulazio askea errazteko (aurrerantzean, «kontrol-agintaritzaren deituko zaie»)»; (II) 54. artikulua –«Honako hauek legez finkatuko ditu estatu kide bakoitzak» (kontrol-agintaritzaren ezartzearen buruzkoak)»; (III) 83.7 artikulua –«Erregelamendu honetako 58.2 artikuluari jarraituz kontrol-agintaritzek izan ditzaketen ahal zuzentzaileak eragotzi gabe, estatu kide bakoitzak neurriak hartu ahal izango ditu erabakitzeke ea bere lurraldean kokatuta dauden agintaritzaren eta erakunde publikoari administrazio-isunak jar dakizkiekeen eta zer neurritan», eta (IV) 84.1 artikulua –«Erregelamendu hau urratzearekin aplikagarriak diren beste zehapen batzuen alorreko arauak finkatuko dituzte estatu kideek, bereziki 83. artikulua araberako administrazio-isunen bidez zehatzen ez diren arau-hausteak, eta arauok betetzen direla bermatzeko behar diren neurri guztiak hartuko dituzte. Zehapen horiek eraginkorrak, neurrikoak eta disuasiokoak izango dira»-.
107. Egoera, jakina, bestelakoa da 2016/680 (EB) Zuzentarauaren kasuan; izan ere, EBFTren 288. artikulua arabera, zuzentzauek estatu kide hartzailea behartzen dute lortu behar den emaitzari dagokionez, baina agintari nazionalen esku uzten du formak eta bitartekoak aukeratzea.



108. Jakina denez, zuzentaraua estatu kideen barne-legedien tresna harmonizatzaile nagusia da, alegia, estatuen botere legegilea ordeztu beharrean, estatuak haren beharra dute estatu kideen artean legeria harmonizatua ezartzeko. Erregelamenduek ez bezala, ez du aplikagarritasun zuzenik, eta zuzentaruaren aurreikusitako helburua betetzeko, barne-araugintza (transposizioa) behar du. Estatu kideek zuzentaruaren transposizioa egiteko egokien deritzoten modua aukeratu behar dute, zuzentaruaren xedea behar bezala interpretatu behar dute eta zuzentaruaren adierazitako epean interpretatu behar dute, zuzentaruak ezartzen dituen emaitza-betebeharrak desitxuratu, saihestu edo aldatu gabe.
109. Horregatik, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/680 (EB) Zuzentaruak transposizio hori egitea eskatzen du, eta hori zuzenbidearen iturriari –lege organikoa/lege arrunta– aplikatu behar zaien konstituzio-araubidea aintzat hartuta eska daitekeen barne-arauren arabera egin beharko da.

II KONSTITUZIO-ESPARRUA

110. Konstituzio-parametroen azterketari ekin aurretik, garrantzitsua da kasuaren berezitasuna gainetik nabarmentzea.
111. Zenbait egilek nabarmendu dutenez, eta Estatu Kontseiluaren irizpen horrek aitortzen duenez, kasua benetan berria da –eta, neurri batean, paradoxikoa ere bada–, Konstituzioaren (EK) 18.4 artikuluan jasotako oinarritzko eskubidea zuzenean arautu duelako Europako arau batek, eta eskubide horren irismena eta edukia zehaztu ditu.
112. Hain zuzen ere, DBEOK arautzen du pertsona fisikoek datu pertsonalak babesteko duten oinarritzko eskubidea (EKren 18.4 artikulua). Gainera, berezko egiazkotasuna eta gainerako guztiekiko autonomia du –Konstituzio Auzitegiaren 290/2000 Epaia (KAE)–, eta pertsona bakoitzari dagokion informazio-fluxuaren gaineko erabateko nagusitasuna ematen dio, baita datuen tratamendu automatizatuaren erabilera ez-legitimoaren ondorioz duintasunaren eta askatasunaren aurkako eraso posibleen aurrean babesteko ere, eta horrelako jarduketan aurrean erreakzionatzeko.
113. Europar Batasuneko araugileak esku hartu ondoren, arau nazionalak garapen- edo osagarri-eremu jakin bat dute, DBEOK horretarako aukera ematen duen eremuetan –eremu horietan bakarrik– (azaldutakoaren arabera), eta, betiere, erregelamenduan ezarritako arau-esparrua zorrotz errespetatuz. Izan ere, gorde behar den gehieneko balioa araugintza-uniformetasuna da; eskubidea zatikatzeko aukera saihestuko da, ondorio negatiboak eragin gabe Batasuneko lurraldean eskubidea babesteko maila orokor erkidearen bermean.



114. Horrela, lege organikoari EKren iturri-sisteman (EKren 81.1 artikulua) dagokion espazioa –eta eginkizuna– hartu du DBEOk, eta, era berean, beste ondorio batzuen artean, konstituzionaltasun-kanona zabaldu du oinarrizko eskubide horri dagokionez, zeinak orain jarraiki egiten dion Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunarekin eta Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak (EJJA) arau europar horri buruz egiten duen interpretazioari.
115. Legegile organikoaren gunea zein intentsitatearekin mugatu den egiaztatzeko, nahikoa da konparaketa egitea Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren xedearen –datu pertsonalen tratamenduari dagokionez, pertsona fisikoen askatasun publikoak eta oinarrizko eskubideak bermatu eta babestea, eta, batez ere, norberaren zein familiaren ohorea eta intimitatea» (1. artikulua)– eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren xedearen artean –«Espainiako ordenamendu juridikoa egokitzea ... Erregelamendura, eta haren xedapenak osatzea» (1. artikulua)–.
116. Gure azterketarako erreferentziazko konstituzio-esparrua maiatzaren 26ko 7/2021 Lege Organikoarekin osatu behar da. Lege organiko hori arau-hauste penalak prebenitzeko, detektatzeko, ikertzeko eta epaitzeko eta zehapen penalak betearazteko tratatutako datu pertsonalak babesteari buruzkoa da, eta 2016/680 (EB) Zuzentarauaren transposizioa egiten du –horretarako epea amaitu, eta, ondorioz, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak Espainiako Erresuma kondenatu zuen 2021eko otsailaren 25eko epaian (2021/32 Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren Epaiak)–.
117. Aurreproiektua epaitzeko deskribatutako esparrutik argitu behar dugu EKren 81.1 artikuluan bi lege organikoen zein eduki babes daitezkeen, eta, ondoren, lehenik eta behin, legegile arruntari irekitako eremua mugatu behar dugu, datuak babesteko oinarrizko eskubidearen egikaritzea arautzeko (EKren 53.1 artikulua). Eta, bigarrenik, eskumena duen legegile arrunta zein izango den identifikatu behar dugu, araututako arloan Estatuaren eta autonomia-erkidegoaren arteko eskumen-banaketaren baldintzen arabera.
118. Gai horiek aztertzeko, 24/2003 Irizpeneko kontsiderazioak aplikatu behar dira funtsean, beharrezko egokitzapenak eginda.

A) Lege organikoaren erreserba, gai lotuak eta oinarrizko eskubidearen egikaritzaren erregulazioa

119. Konstituzio-doktrinaren arabera, lege organikorako erreserba (EKren 81.1 artikulua ohia) zentzu murriztailean ulertu behar da: oinarrizko eskubidearen zuzeneko garapenera mugatu behar da lege organikoa, eskubide horren egikaritzaren erregulazioan sartu



gabe, zeina lege arruntaren berezko zeregina baita (besteak beste, Konstituzio Auzitegiaren epai hauek: 6/1982, 67/1985, 160/1987, 127/1994 eta 173/1998.).

120. Konstituzio Auzitegiak berretsi du lege organikoari oinarrizko eskubide edo askatasun publiko bat arautzea baino ez dagokiola, Konstituzioak zuzenean «garatuko» duena eskubidea definitzeko funtsezko elementuen bidez –ez da garrantzizkoa erregulazioa zuzena, orokorra eta globala edo sektoriala izatea–, eta garrantzitsuena da eskubidearen legezko mugaketa eta definizioa izatea haren xedea (besteak beste, Konstituzio Auzitegiaren epai hauek: 6/1982, 67/1995, 140/1986, 127/1994). Horrenbestez, honako hauek dira Konstituzioak lege organikoari ematen dizkion egitekoak: «eskubidea definitzeko funtsezko alderdi jakin batzuk arautzea, haren eremua aurreikustea eta mugak ezartzea Konstituzioak babestutako beste askatasun batzuekiko» (132/1989 KAE).
121. Halaber, lege organikoaren irismen materiala mugatzeko, zehaztu behar da lege organikoaren erreserba hori ez dela, zentzu propioan, Estatuaren eta autonomia-erkidegoen arteko eskumenak mugatzeko teknika bat (173/1998 KAE).
122. Lege organikoaren eta arruntaren arteko harremanak goiburu duen logika ez dator bat gai baten erregulazioa Estatuaren eta autonomia-erkidegoaren artean banatzeak euskarri duenarekin (EKren 149.1 artikulua); aitzitik, lege mota horietako bakoitzari eman zaion konstituzio-eginkizunarekin du zerikusia, zeren eta, Konstituzio Auzitegiak deklaratu duenez (76/1983, 160/1987, 101/1991 eta 173/1998 KAEak), botere konstituziogilearen luzapena edo jarraipena baita lege arruntaren maila desberdinean mugitzen dena eta lege arruntari –estatukoari zein autonomikoari– nagusitzen zaiona, Konstituzioaren ezinbesteko osagarri den aldetik, garatzen duen oinarrizko eskubidearen berme gisa (140/1986 KAE).
123. Beraz, lege organikoaren eremu materialetik kanpo –ezohiko edo «salbuespenezko» legeria, besteak beste, 76/1983 eta 160/1987 KAEak–, legegile arruntari egokituko zaio eskubidea egikaritzeko baldintzak arautzea –eskumena du arloari aplikatu dakioken banaketa-ordenaren arabera– (EKren 53.1 artikulua).
124. Hala ere, jakina denez, Konstituzio Auzitegiak goiz onartu zuen oinarrizko eskubide bat zuzenean garatzeko lege organikoek garapen horrekin gai «lotuei» buruzko aurreikuspenak izan zitzaketela (5/1981 KAE). Baina horretarako baldintza bat jarri zuen: lege organikoak berak identifikatzea gai lotu horiek, hartara, EKren 81.2 artikuluan ezarritako lerrun-izoztea saihesteko eta segurtasun juridikoa babesteko. Izan ere, segurtasun juridiko horrek eragina izan lezake manu «zorrotzen» (organikoen) eta «lotuen» (arrunten) arteko artikulazio-araurik ez egoteagatik edo horiek akatsen bat izateagatik.



125. Konstituzio-doktrinaren arabera, «gai lotua» —organikoa delako «gai hertsia» aurkakoa baita—, laburbilduz, lege organiko batean sartuta egon arren, lege organiko horretan legegile arruntak —estatukoak edo autonomikoak, eskumen-printzipioaren aplikazioak kasu bakoitzean ematen duen emaitzaren arabera— aldaketak sar ditzake.
126. Gure kasuan, bi lege organikoek materia organikoa mugatzeko betebeharra bete dute (3/2018 Lege Organikoaren azken xedapenetako lehen eta 7/2021 Lege Organikoaren azken xedapenetako bederatzigarrena), eta horrek, bestalde, ez die ezertan eragiten datuen babeserako Europako ereduaren oinarrii.
127. Azterketa zehatu horren arabera, 3/2018 Lege Organikoak honako hauek biltzen ditu zirkulu organikoan: I. titulua, «Xedapen orokorrak» —xede, aplikazio-eremua eta hilda dauden pertsonen datuen araubidea—; II. titulua, «Datuak babesteko printzipioak» —zehaztasuna, konfidentziasuna, adostasuna (adingabeena ere bai), datuen tratamendua legezko betebeharragatik, interes publikoagatik edo botere publikoak egikaritzeagatik, eta datu-kategoria bereziak —; III. titulua, «Pertsonen eskubideak» —gardentasuna eta ukituari informazioa ematea, datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, mugatzeko, eramateko eta aurka egiteko eskubideak baliatzeari buruzko xedapenak —; V. titulua —tratamenduaren arduradunaren eta eragilearen betebeharren araubidea, datuak blokeatzea, datuak babesteko ordezkariaren araubidea, jokabide-kodeak eta ziurtapena—; VI. titulua —datuen nazioarteko transferentzien araubidea—, 52. artikulua, administrazio publikoen eta komunikazio elektronikoen zerbitzuak ematen dituzten operadoreen eta informazio-gizartearen zerbitzu-emateen lankidetzaren betebeharrari buruzkoa, eta 53. artikulua, ikerketa-jardueraren helmenari buruzkoa; X. titulua, «Eskubide digitalen bermea» —hezkuntza digitalerako eskubidea; Interneten adingabeak babesteko; Interneten zuzentzeko, hedabide digitaletan informazioa eguneratua izateko; intimitaterako eskubidea eta gailu digitalen erabilera lan-eremuan; deskonexio digitalerako eskubidea lan-eremuan; intimitaterako eskubidea, lantokian bideozaintzarako eta soinu-grabazioetarako gailuak erabiltzen direnean; intimitaterako eskubidea, lan-eremuan geolokalizazio-sistemak erabiltzen direnean; eskubide digitalak negozio kolektiboan; Interneten adingabeen datuak babestea; ahaztua izateko eskubidea Interneteko bilaketetan; eta ahaztua izateko eskubidea sare sozialen zerbitzuetan eta antzeko zerbitzuetan—. Azken zatia dagokionez, izaera organikoa dute bigarren xedapen gehigarriak, datuen babesari, gardentasunari eta informazio publikorako sarbideari buruzkoak, eta hamazazpigarren xedapen gehigarriak, osasunari buruzko datuen tratamenduari buruzkoak. Azken xedapenetako lehenengoa —legearen edukia zedarriz baitu—, bigarrena —Estatuaren eskumen-titulua zerrendatzen baitu— eta hauteskunde-araubide orokorra, botere judiziala eta unibertsitatetako hezkuntza arautzen dituzten lege organikoak aldatzen dituzten azken xedapenak, bai eta indarrean jartzea ezartzen duena ere.



128. Azken xedapenetako lehenengoaren arabera, honako hauek gai lotuak dira, eta legegile arrunt eskudunak hel diezaieke: IV. titulua, «Tratamendu zehatzei aplikatu beharreko xedapenak»; VII. titulua, «Datuak babesteko agintaritzak» –52. eta 53. artikulua izan ezik–; VIII. titulua, «Datuak babesteko araudia urratuz gero erabili beharreko prozedurak»; IX. titulua, «Zehapen-araubidea», eta X. tituluaren barruan, «Eskubide digitalen bermea», aro digitaleko eskubideak (79. artikulua), Interneten neutraltasunerako eskubidea (80. artikulua), Interneterako sarbide unibertsala izateko eskubidea (81. artikulua), segurtasun digitalerako eskubidea (82. artikulua), eramangarritasun-eskubidea sare sozialen zerbitzuetan eta antzeko zerbitzuetan (95. artikulua), testamentu digitalerako eskubidea (96. artikulua), eta eskubide digitalak sustatzeko politikak (97. artikulua). Organikotzat jo ez diren xedapen gehigarriekin eta azken xedapenekin batera.
129. Bestalde, 7/2021 Lege Organikoaren erregulazioa organikoa da, honako hauek izan ezik: VI. Kapitula, «Datu independenteak babesteko agintaritzak»; VII. Kapitula, «Erreklamazioak»; VIII. Kapitula, «Zehapen-araubidea»; azken xedapenetako bigarrena, Fiskaltzaren Estatutu Organikoa aldatzen duena; azken xedapenetako seigarrena, Kirol ikuskizunetan egon daitekeen indarkeria, arrazakeria, xenofobia eta intolerantziaren aurkako uztailaren 11ko 19/2007 Legea aldatzen duena; azken xedapenetako zazpigarrena, Segurtasun Pribatuari buruzko apirilaren 4ko 5/2014 Legea aldatzen duena; eta azken xedapenetako zortzigarrena, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu bategina aldatzen duena, urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua.
130. Legegileak hautatutako materia organikoa konstituzionaltasun-blokearekin erabat bateragarria dela baieztatzeko, ez dugu Konstituzio Auzitegiaren erabakirik gai horri buruz.
131. Horri dagokionez, irizpen hau emateko unean, Konstituzio Auzitegiaren maiatzaren 22ko 76/2019 Epaia bakarrik aipatu behar da, zeinak Hauteskunde Araubide Orokorren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 58.bis artikulua 1. apartatua Konstituzioaren aurkako dela deklaratu baitzuen, 3/2018 Lege Organikoaren azken xedapenetako hirugarrenaren idazketari dagokio ez.
132. Laburbilduz, Auzitegi Gorenaren iritziz, apartatu berriak –«alderdi politikoei beren hauteskunde-jardueren esparruan biltzen dituzten pertsonen iritzi politikoei buruzko datu pertsonalak interes publikoaren babesean egongo dira, baldin eta berme egokiak eskaintzen badira»– «hiru aldiz urratzen zuen EKren 18.4 artikulua, EKren 53.1 artikuluekin lotuta. Hiru urraketak autonomoak eta independenteak, guztiak ere legearen eskasiarekin lotuak eta legegileak bakarrik konpon ditzakeenak. Gainera, EKren 53.1 artikulua ezartzen duen oinarriko eskubidearen funtsezko edukia babesteko mandatua haustea ekarri zuten hirurek berekin; izan ere, alde batetik, aurkaratutako lege-araua ziurtasun-eskakizunetara ez egokitzeak arrisku bat sortzen du datu pertsonalen bilketa aplikatzen dakiekeen guztientzat, eta arrisku horretan datza, hain zuzen ere, urraketa



hori, eta, bestalde, tratamenduaren helburua zehaztugabea izatea eta «berme egokirik» edo «legeari eska dakizkiokeen gutxieneko bermeak» ez izatea oinarritzko eskubidearen injerentziak dira berez, eta eduki nuklearrean zuzenean sartzea bezain larriak dira ia».

133. Dударik gabe, datu hori ez da Konstituzio Auzitegiaren epaiarena planokoa, beste batekoa baizik, eta, era berean, esan behar da, 3/2018 Lege Organikoa onartzeko atzerapenaren aurrean, uztailaren 27ko 5/2018 Errege Lege Dekretua onartu zela, Espainiako zuzenbidea Europar Batasunak datuen babesaren arloan emandako araudira egokitzeko presako neurriena.
134. Arau horrek hiru gai arautu zituen, Konstituzioaren testuak 86. artikuluan lege-dekretuari ezartzen dizkion mugak kontuan hartuta: ikuskapen-jarduera, zehapen-arabidea eta Datuak Babesteko Espainiako Agentziak (DBEA) jarraitu behar duen prozedura. Orain burutzen ari garen azterketaren harira, xede horrek sendotu egingo luke honako ideia hau: hiru gai horiek gai lotuaren eremu naturala dira. Gainera, hala berretsi dute 3/2018 Lege Organikoa eta 7/2021 Lege Organikoa. Alegia, ez dira funtsezkoak oinarritzko eskubidea definitzeko, eta ez zaizkio lege organikoari erreserbatzen, adierazitako baldintzetan.
135. Esparru horretan, irizpen positiboa merezi du aurreproiektua bi lege organikoekin alderatzeak, gai lotuei buruzkoa baita: zehazki, datuak babesteko agintaritzen arabidea (3/2018 LO VII. titulua eta 7/2021 LO VI. kapitulua), datuak babesteko araudia urratuz gero erabili beharreko prozedurak (3/2018 LO VIII. titulua) edo erreklamazioak (7/2021 LO VII. kapitulua), bai eta zehapen-arabidea ere (3/2018 LO IX. titulua eta 7/2021 LO VIII. kapitulua).

B) Eskumen-alderdiak: EKren 149.1.1 artikulua

136. EKren 149.1.1 artikulua eskumen eskusiboa ematen dio Estatuari «konstituzio-eskubideak egikaritzean eta konstituzio-eginbeharrak betetzean, espainiar guztien berdintasuna bermatzen duten oinarritzko baldintzak arautzeko».
137. Manu horrek jurisprudentzia konstituzionalaren bilakaera luze eta neketsua behar izan du, behin betiko eskumen-titulu autonomo gisa karakterizatzeko, eta esanahi propioa eta berezia izateko EKren 14. eta 139.1 artikuluen arabera.
138. Horrela, Konstituzio Auzitegiaren 61/1997 eta 173/1998 Epaietatik abiatuta, EKren 149.1.1 artikulua, laburbilduz, eskumen-titulu gisa mugatu da. Eduki propioa du eta ez hondarrekoa, hau da, eskubidearen lehen edukiaren erregulazioan oinarritzkoak diren funtsezko jarrera juridikoak jasotzen ditu, eskubidea gauzatzean berdintasuna bermatzeko ezinbestekoak eta beharrezkoak direnak.



139. Alde batetik, oinarrizko baldintza horiek «eskubidearen oinarrizko edukia, funtsezko jarrera juridikoak» dituzte xede. Ez gara, beraz, edozein baldintza «materialez» ari, baizik eta berdintasun hori bermatzeko nahitaezko eta beharrezko diren baldintzez, eta ezin da izan «erabateko berdintasun formala»; hala ere, oinarrizko baldintzekin beharrezko eta berehalako lotura duten irizpideak ere oinarrizko baldintza horien barruan daudela uler daiteke, hala nola eskubidea osatzen duten ahalmenen xedea edo esparru materiala; eskubide bat gauzatzeko eginbeharrak, betekizunak eta oinarrizko baldintzak; eskubidea gauzatu ahal izateko ezinbestekoak diren betekizunak edo antolaketa-esparrua.
140. Bestetik, eskumen-titulu horri esleitutako gaia konstituzio-eskubidea edo -betebeharra da, zentzu hertsian, bere horretan hartuta, eta harekin harreman zuzena eta berehalakoa duten baldintzei baino ez die ematen estaldura. Hau da, EKren 149.1.1 artikuluari esleitutako «gai» ez da errealitatearen sektore zehatz bat, konstituzio-eskubide eta -betebeharrak baizik. Titulu autonomia da, eta Estatuari ahalmena ematen dio berdintasuna bermatzen duten oinarrizko baldintza horiek arautzeko, nahiz eta baldintza horien oinarrizko izaerak araubide juridikoaren diseinu osoa eta osatua eragozten duen.
141. EKren 149.1.1 artikulua gaikuntza bat jasotzen du, Estatuak eskumen autonomikoen egikaritze baldintza dezan oinarrizko baldintza uniforme horiek ezarriz, eskubideak egikaritzean berdintasuna bermatze aldera. Dena den, titulu hori ez dator bat Estuari gai jakin batzuen oinarriak edo oinarrizko legeria finkatzea esleitzen dioten tituluekin. EKren 149.1.1 artikulua ez da estatu-oinarria/garapenerako legeria autonomikoa logikaren eremukoa, eta ez da edozein sektore edo gaitan sartzeko gai den titulu horizontal bat. Eskubideak edo betebeharrak txertatzen diren sektore materialen gaineko eskumenaren titulartasunak ez du oinarrizko baldintzak ezartzeko aukerarik ematen.
142. Transkribatutako doktrinatik ondoriozta daitekeenez, aztertzen ari garen kasuan, Estatuko legegileak oinarrizko baldintzatzat kalifikatu ahal izango ditu informazio-autodeterminaziorako eskubidearen egikaritze erregulatzeko elementuak eta alderdiak, baldin eta ezinbestekotzat edo beharrezkotzat jotzen baditu herritar guztien funtsezko posizio juridikoa berdina izango dela bermatzeko. Baina horiek hala diren neurrian bakarrik; beraz, zuzeneko harremana izan behar dute egikaritze horrekin, eta egokiak, arrazoizkoak eta proportzionatuak izan behar dute berme hori betetzeko.
143. Era berean, Konstituzio Auzitegiaren doktrinaren arabera, gai lotuak nahitaez identifikatzearekin edo funtsezko oinarri eta arauekin gertatzen den bezala (69/1988 KAE), oinarrizko baldintzak, ematen zaien funtzioagatik, formalki identifikatuta agertu behar dira legearen testuan; edonola ere, baliteke Konstituzio Auzitegiak horiek aldatzea, hark baitu baliozkotasunari buruzko azken hitza, konstituzionaltasun-



azterketa egiten zaionean. EKren 149.1.1 artikulua eskubideak baliatzeko baldintzak lege organiko batean txertatzen direnean –aztertutako kasuan bezala–, gaia lotuaren habitat naturala izango dute.

144. 3/2018 LOk eta 7/2021 LOk betebeharrak hori betetzen dute, eta Estatuko legegile arruntak EKren 149.1.1 artikulua eskumena baliatzen duen kasuak identifikatzen dituzte (3/2018 Lege Organikoaren azken xedapenetako bigarrena eta 7/2021 Lege Organikoaren hamargarren xedapen gehigarria).
145. Izan ere, esan daiteke aurreproiektua aztertzeko garrantzitsuak diren gai lotuetan –lehen identifikatu ditugu–, EKren 149.1.1 artikulua dela, batez ere, aurreproiektua ematea justifikatzen duen eskumen-euskarria, eta, ondorioz, egokitze horrek jarraitu egin beharko diola azaldu dugun konstituzio-doktrinaren irizpideei.
146. Eskumen-oinarri horretatik kanpo geratzen da 3/2018 Lege Organikoaren VIII. titulua –datuak babesteko araudia urratuz gero erabili beharreko prozedurei buruzkoa–, Estatuko Administrazio Orokorrari eta haren erakunde autonomoei soilik aplikatzen baitzaie (azken xedapenetako bigarrena).
147. 7/2021 Lege Organikoaren 52.2 artikulua ere salbuespen bera du; izan ere, «mota horretako erreklamazioak datuak babesteko agintaritzak eskudunak izapidetuko ditu, abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren VIII. tituluaren ezarritako prozedurari jarraituz, eta, hala badagokio, aplikatzekoa den autonomia-erkidegoetako legeria betez. Administrazio-prozedurei eta sektore publikoaren araubide juridikoari buruzko arau orokorrek osatuko dute, modu subsidiarioan, aipatutako legeria».
148. Datuak babesteko agintaritzen araubidea ezartzeko EKren 149.1.1 artikulua oinarriari dagokionez, zenbait eztabaidagai sortu dira, eta batzordearen ustez, horiei buruz gogoeta egin behar da, arretaz, autonomia-erkidegoen eskumenaren nondik norakoen ulermenari eta egungo arau-testuinguruan izan dezaketen ahalmenari eragiten baitie.
149. Egia denez, Konstituzio Auzitegiaren 290/2000 Epaiak (14. OJ), Datu Pertsonalen Tratamendu Automatizatua arautzeko urriaren 29ko 5/1992 Lege Organikoaren (DTALO) aurka jarritako konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsioak ebatztea, adierazi zuen lege horretan aurreikusitako Datuak Babesteko Bulegoaren eginkizun eta ahalmenen erregulazioa EKren 149.1.1 artikulua horrek babesten zuela.
150. Zehazki, bulegoak titulartasun pribatuko fitxategiei buruz dituen atribuzioei dagokienez, argudiatu zenez, «Konstituzioak lurralde nazional osoan oinarritako eskubideak babestu behar dituzte, gure ordenamenduan duen funtzioari jarraituz (EKren 10.1 artikulua), eskubide horiek zuzeneko eragina izan behar dute Estatuaren eta autonomia-erkidegoen arteko eskumen-banaketan,



EKren 149.1.1 artikulua araber, eskubide horiek baliatzeko orduan espainiar guztien berdintasuna bermatzeko. Era berean, (...) eskakizun horrek ahalmena ematen dio Estatuari araubermeak eta, hala badagokio, erakunde-bermeak ezartzeko».

151. Hala eta guztiz, une honetan, kontuan hartu behar da espainiar guztien egikaritzeberdintasuna Europako arauditik eratorritako babes-eskemaren mende dagoela, eta hortik ezin da ondorioztatu honako hau funtsezko baldintza denik oinarritzko eskubidea egikaritzeko: Datuak Babesteko Espainiako Agintaritzari eskusiboki esleitzea pertsona fisiko eta juridiko pribatuek egindako tratamenduak, 3/2018 Lege Organikoaren 57.1 artikulua egindako mugaketaren ondorioz.
152. Ildo horretan, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak 3/2018 Lege Organikoaren aurreproiektuari buruz 2017ko urriaren 26an egindako txosten osagarriarekin batera emandako boto partikularra adierazten da. Boto horrek DBEOk EKren 149.1.1 artikulua eskumen-titulua irismenean izan duen eragina nabarmentzen du: «DBEOk Europar Batasun osoan helburu bera duen erregimen uniforme ezarri duenez, eztabaidagarria da oinarritzko baldintza gehigarriak gehiago finkatzeko lekua egotea, Estatuak DBEOren deiar erantzuten dion erregulazioaren zatietan barne».
153. Hain zuzen ere, DBEO berak proposatzen du estatu kide guztietako pertsona fisikoei tratamenduaren arduradun eta eragileei eska dakizkiekeen eskubide eta betebeharrak erantzukizun berberak eskaintzea, eta bere gain hartzen du estatu kide guztietan datu pertsonalen tratamenduaren Europa mailako gainbegiratze koherentea eta zehapen baliokideak emango dituen sistema instituzional bat ezartzeko helburua.
154. *Ius commune* moduko bat da datu pertsonalak babesteko oinarritzko eskubidearen arloan, europar guztien berdintasuna bermatzeko ezinbesteko edo beharrezko baldintzak betetzen dituen, hau da, eskubidearen oinarri komuna estatu kide guztietan, edo, nahiago bada, eskubidearen Europako gutxieneko izendatzaile komuna.
155. Gainbegiratzeari dagokionez, DBEOren 117. kontuan hartuzkoak eta 51. artikulua babesten dute estatu kideek kontrol-agintaritzak baina gehiago ezarri ahal izatea, beren egitura konstituzionala, antolamendukoa eta administratiboa islatzeko, eta babes-eskema instituzional hori aldatu gabe. Eskema hori Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1995eko urriaren 24ko 95/46/EE Zuzentarauak jasotzen du, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoak.
156. Europaren ikuspegitik, ez lehen, ez orain, DBEOrekin –eskubidearen formulazio oso bukatua jasotzen baitu–, garrantzitsua da eskubidearen babesa estatu kideetan agintaritzak bati edo gehiagori esleitzea. Eta esplizituki aitortzen du eskumen horiek esleitura dituzten organoak egon daitezkeela.



157. Espainiako kasuan, onartu egin zen Datuak Babesteko Agintaritzek eskainitako prebentziozko tutoretza zatikatuta egotea, tratamenduak lotura bazuen funtzio publikoen egikaritzearekin edo partikularren jarduerekin, baina, Konstituzio Auzitegiak adierazitakoaz harago, ez da azalpen sinesgarririk eman desberdintasunaren zergatiari buruz, ezta zergatik dagoen justifikatuta ere. Hau da, zein zen estatu-mailako agintaritza baten jarduera aurreikusteko arrazoia oinarrizko eskubidea harreman pribatuetara proiektatzen zenean, baina ez izatea hala, ordea, eskubidearen eraginkortasuna botere publikoen jarduketetan baliatzen zenean, oinarrizko eskubideak babesteko eremu naturala baita.
158. Horri gehitu behar zaio, orain, subjektu pribatuek datuak tratatzearen eremuan ere, eskubidearen babesa ez dela Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren esku bakarrik geratzen, baizik eta DBEOren eskemarekin eta «leihatila bakarraren» ereduarekin, erreklamazio bati buruzko erabakiak beste estatu kide bateko kontrol-agintaritza batek har ditzakeela, mugaz gaindiko tratamendua denean, erregelamenduaren aplikazio koherentea bermatuko duten mekanismoak ezarrita; horretarako, kontrol-agintariak elkarren artean eta, hala badagokio, Batzordearekin lankidetzan jardun behar dute.
159. Era berean, datuak babesteko agintaritzek garatu behar duten jardueraren garrantzia murriztu gabe, herritar orok benetako babes judizialerako eskubidea balia dezake, eta ekintzak aktiba ditzake kontrol-agintaritza baten aurka edo, zuzenean, tratamenduaren arduradun edo eragile baten aurka. Kasu horretan, gerta daiteke horiek establezimenduren bat duten estatu kideko auzitegietan ez egikaritzea, DBEOren 79.2 artikulua eskumena ematen baitio interesdunari bere akzioak gauzatzeko interesdunak ohiko bizilekua duen estatu kideko auzitegietan.
160. Eta, azken batean, datuak babesteko eskubidearen aplikazio uniformeak, DBEOtik kanpo dauden eremuetan izan ezik, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak egindako interpretazioak bermatuko du, haren doktrinak konstituzionaltasun-kanona finkatzeko balioko baitu.
161. DBEOren 143. kontuan hartuzkoak dioenez, erregelamendua aplikatzearekin loturiko ekintza judizialen testuinguruan, euren epaitza emateko horri buruzko erabaki bat izateari beharrezko deritzoten epaitegi nazionalak Justizia Auzitegiari eskatu diezaioke, edo, EBFTko 267. artikuluan ezarritako kasuan, eskatu behar diote, epaitu aurretik erabaki dezala Europar Batasuneko zuzenbidearen (aipatutako erregelamendua barne) interpretazioaz.
162. Azken buruan, agintari desberdinen arteko lankidetzaren mekanismoak aplikatu ahal badira, beharrezkoa den laguntza emanez, eta erregelamenduaren aplikazio uniformeak auzitegiek bermatzen badute, ez da argi geratzen EKren 149.1.1 artikulua titulura jo behar denik. Ez dirudi inolako arriskurik dagoenik konjurtatzeko: ez da ikusten zer



alderditan gerta daitekeen datu pertsonalak berdintasunez babesteko eskubidea egikaritzeko behar ez bezalako murrizketa edo baldintzapen bidegaberik, DBEOren 57. eta 58. artikuluetan ezarritako ahalmenak eta funtzioak agintari autonomikoei esleitzeagatik, ezta datuen tratamenduei dagokienez ere, baldin eta horien arduradunak eta eragileak pertsona fisiko edo juridiko pribatuak badira, eta haien establezimendu nagusia edo bakarra haien lurraldean badago.

163. Edonola ere, aurreproiektuak ez du zalantzan jartzen zedarritze hori –nahitaez aitortu behar da–, gure ordenamenduan finkatutako errealitate juridikoa baitu aurretik, eta autonomia-erkidegoen eskumenak, hots, arauak garatzeko eta datuak babesteko oinarrizko eskubidea betearaztekoak, haren sektore publikora mugatzen dira. Autonomia-erkidegoetan sortzen diren datuak babesteko agentziei dagokie oinarrizko eskubide hori eremu horretan bertan bermatzen laguntzea.
164. EKren 149.1.1 artikulua, hasiera batean, zehapen-araubideari buruzko erregulazioan ere egongo da presente. «Hasiera batean» diogu, kasuaren berezitasuna berriro nabari delako eremu horretan –gero aztertzen den bezala–.
165. Beste ikuspegi batetik, agintaritzaren eta haren jardueraren konfigurazioari berari dagokionez, kontuan hartu behar dira beste titulu osagarri batzuk ere, hala nola EKren 149.1.18 artikulua, zeinek aitortzen baitute Estatuak eskumena duela administrazio publikoen araubide juridikoaren eta funtzionarioen estatutu-araubidearen oinarrien arloan, eta, nolahi ere, administratuei bermatuko dietela haien aurrean tratamendu komun bat erabiltzea, hau da, administrazio-prozedura erkidea, kalterik egin gabe autonomia-erkidegoen berezko antolamendutik, kontratuei buruzko oinarrizko legeriatik edo herri-administrazio guztien erantzukizun-sistematik eratorritako berezitasunei.
166. Era berean, 3/2018 LOk Estatuko titulu horren babesean emandako arau bat ezartzen du epeen neurketarako hirugarren xedapen gehigarrian –azken xedapenetako bigarrenaren 5. apartatuaren esanbidezko adierazpenaren arabera–, «(EB) 2016/679 Erregelamenduan eta lege organiko honetan ezarritako epeak neurtzeko, alde batera utzita partikularren arteko harremanak diren edo sektore publikoko entitateekiko harremanak diren».
167. Halaber, EKren 149.1.18 artikulua horrek eragin zuzena du aurreproiektuaren prozedura-edukien balorazioan, prozedura-arauak ezartzeko eskumen autonomikoaren kontrapuntu gisa –Autonomia Estatutuaren (EHAE) 10.6 artikulua, «Euskal Herriak emandako zuzenbidearen berezitasunen eta bere antolaketa bereziaren haritik datozen prozesu-arauak»–.



C) Estatutuaren eskumen-tituluak

168. EHAEn eskumen-tituluei dagokienez, halaber, 24/2003 Irizpenean esan genuen bezala, pentsa daiteke ezen, datuen tratamendua autonomia-erkidegoek hainbat arlotan dituzten eskumenak baliatzeko beharrezko tresna denez, eskumen horien titulartasunak fitxategiak arautzeko gaitasuna emango lukeela, informazio-autodeterminaziorako oinarrizko eskubidearen erabilera bermatze aldera.
169. Badirudi hori dela, beste alde batetik, DBEOren ikuspegia, zeinak, lehenik eta behin, bere aplikazio-eremu materialetik kanpo uzten baitu datu pertsonalen tratamendua, 2.1.a) artikulua arabera, «Batasuneko zuzenbidearen aplikazio-esparrutik kanpoko jardueretan».
170. Hala ere, Konstituzio Auzitegiak baztertu egin zuen eskumen-multzotik eratorritako instrumentaltasun-harreman hori. Horrela, aipatutako 290/2000 KAEan (11. OJ) adierazi zenez, «DTALO, hain zuzen ere, EKren 18.4 artikuluan jasotako agindua betetzeko eman da, hau da, informatikaren erabilera mugatzeko agindua, oinarrizko eskubide batzuk bermatzeko eta herritarren eskubideak erabat egikaritzeko. Hala, bada, hemen aztertzen ari garen jardura beste eskumen-gai batzuen tresna edo osagarri soilizat jotzen bada, argi dago planteamendu horrekin hutsaldu egiten dela zein den Konstituzioaren arabera garrantzitsua den ondasun juridikoa, alegia, datu pertsonalak babestea herritarren oinarrizko eskubide jakin batzuk kaltetu edo haien eskubideen egikaritza osoari eragin diezaiokeen tratamendu informatiko baten aurrean, Konstituzioaren agindu horren arabera argi eta garbi ondorioztatzen den bezala».
171. Arrazoitu dugunez, badirudi DBEOren egungo eskeman gaintitu egin direla autonomia-erkidegoen jarduketa-eremua beren kontrol-agintaritzen bidez bereizteko erabilitako irizpideak, datuak babesteko eskubidearen eremuan, baina, kontsiderazio hori alde batera utzita *–de lege ferenda* une honetan–, egia esan, proiektaturiko arauketaren zatirik handiena Datuak Babesteko Euskal Agintaritza sortzeari buruzkoa denez, ekimena oinarritzen duen eskumen-eremu autonomiko nagusia EHAEn 10.2 artikuluan jasotakoa da; artikulua horrek eskumen eskusiboa aitortzen dio autonomia-erkidegoari gai hauetan: «bere autogobernu-erakundeen antolaketa, araubidea eta jardura, Estatutu honetako arauen esparruan».
172. Ikuspegi horretatik, eta autonomia-erkidegoaren eskumenaren potentzialtasunari buruz lehen aipatutako kontsiderazioari berriro helduz, baliteke disfuntzionala izatea erakunde pribatu jakin batzuek (zehazki, horien jardura, oro har, administrazio autonomikoen ikertzeko eta zuzentzeko ahaleen mende dagoenean, gai askotan), datuen tratamenduari dagokionez, gainbegiratze eta kontrol hori agintaritza zentral bati helaraztea, eta datuak babesteko agintaritza autonomikoari lehentasuna ematea, baldin eta biek, Europako araudiak hala ezarrita, berme-maila bera badute, modu –organiko eta funtzional– berean taxututa daudelako.



173. Nolanahi ere, ondorio gisa, proiektaturiko arauak agerian uzten du artikuluko horrek autonomia-erkidegoari ematen diola autoantolaketarako ahala, autogobernua instituzionalizatzeko eta autonomia-administrazioa osatzen duten organo, administrazio-unitate edo erakundeak sortu, aldatu eta ezabatzeko organoak arautzeko. Beraz, izaera instrumental nabarmena duen atribuzio bat da, autonomia-erkidegoaren botereen erabileraren eta EHAk bere gain hartutako eskumen materialen zerbitzura dagoena, eta, horregatik, implizitua da EKren 2. artikuluko aitortutako autonomia-kontzeptuan bertan (50/1999 KAE, 3. OJ). Ahal hori erabiltzea legitimatuta dago, ondorioz, berariazko arau-laguntzarik behar izan gabe, harreman instrumentala dagoelako kasuan kasuko antolaketa-jardueraren eta horrek eragiten dituen eskumen materialen artean.
174. Dena den, Konstituzio Auzitegiak jakinarazten duenez, antolaketa-eskumen horrek ez du esan nahi administrazio publiko guztien antolamendu- eta funtzionamendualderdiei buruzko oinarritzko printzipioak eta arauak ezarri ezin direnik, administrazio publikoen araubide juridikoaren oinarriari buruzko eskumenean oinarrituta (EKren 149.1.18 artikulua).
175. Hala eta guztiz, ikuspegi horretan ere kasuaren berezitasuna nabarmentzen da berriro: DBEOk ia osorik taxutu ditu kontrol-agintaritzaren guztien araubidea, konfigurazioa eta eskumenean eta funtzioen zerrenda.
176. 3/2018 Lege Organikoaren VII. tituluko II. kapituluaren eta 7/2021 Lege Organikoaren VI. kapituluaren erregulazioa –gai lotu gisa kalifikatua–, eskumen-banaketa eskeman, EKren 149.1.18 artikuluko horren erabileraren emaitza izan liteke, baina, egia esan, titulu horren jarduera-eremua –EHAren 10.2 artikulua bezala– erabat baldintzatuta dago Europako arauarekin eta arau nazionalen lankidetzaren onartzeko alderdiekin.
177. 3/2018 LOk eta 7/2021 LOk datuak babesteko agintaritzaren autonomikoak sortzeko aukera aitortzea autonomia-erkidegoek duten autonomiaren adierazgarri da.
178. Barne-mailan, EHAren 10.2 artikulua babesa ematen dio Euskal Autonomia Erkidegoko botere guztiak erantzule diren datu-tratamenduetara proiektatzen den erregulazio bati, datuak babesteko oinarritzko eskubidea babesteko eredu autonomiko baten zerbitzura.
179. EHAren 10.2 artikulua aitortutako eskumenez gain, gomendagarria litzateke, halaber, Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumen eksklusiboak aipatzea. Eskumen horiek EHAren 10.4 artikuluan daude jasota, toki-araubidearen eta Euskal Autonomia Erkidegoko eta toki-administrazioaren funtzionarioen estatutuaren arloan, EKren 149.1.18 artikuluan eta EHAren 10.6 artikuluan ezarritakoari kalterik egin gabe: «Euskal



Herriak emandako zuzenbidearen berezitasunen eta bere antolaketa bereziaren haritik datozen prozesu-arauak eta administrazio-jardunbideari zein ekonomia-administraziokoari dagozkion arauak».

180. Azken eskumen hori berariaz aztertu behar da. Aurreproiektuaren VI. kapituluaren azterketan jorratuko dugu, hots, datuen babeserako arauak hautsiz gero aplikatzeko prozedurei buruzkoan.

LEGE-AURREPROIEKTUAREN AZTERKETA

I OHAR OROKORRAK

181. Adierazi dugunez, azalpen-zatiak ohartarazten du aurreproiektuak ez duela eragin nahi Europako araudiak eta Estatuko lege organikoek arautzen duten datuak babesteko oinarritzko eskubidean.
182. Batzordeak egoki deritza aurreproiektuaren planteamendu horri, eta onartu du ez dela sartu behar eskubidearen edo askatasunaren erregulazio orokorrean edo haren araubide juridikoaren funtsezko alderdien antolamenduan. Hori dela eta, haren erregulazioaren xedea zedarrizten du, eta haren ardatz gisa hartzen ditu Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren araubide juridikoa, haren antolamendua, funtzioak eta ahalak, zehapen-araubidea (agintaritza horri baitagokio hori betearaztea) eta haren ahalmen zuzentzaileak gauzatzeko jarraitu behar diren prozedura-arauak.
183. Datuak Babesteko Euskal Agintaritzarentzat proiektatutako konfigurazioa aztertu aurretik, egokia dirudi gogoraraztea zer bilakaera izan duen kontrol-agintaritzei buruzko araudiak.
184. Europako Kontseiluaren 1981eko urtarrilaren 28ko 108. Hitzarmenak, datu pertsonalen tratamendu automatizatuari dagokionez pertsonak babestekoak, aurreikusi zuen alderdiek agintaritza bat izendatuko zutela elkarri laguntza emateko, eta aurreikuspen hori izan zuten oinarritzat Europako estatuek eta Datuak Babesteko Espainiako Agentziak kontrol-agintaritzak sortzeko orduan.
415. Juridikoki seguruagoa litzateke etetea zehapen-prozeduraren hasierarekin lotzea eta interesduna jakinaren gainean jartzea –38.1 artikulua arabera, prozedura hasteko erabakia–. Zehapen-araubideak ezartzen dituzten arauetan erabili ohi den formula bat da –adibidez, 40/2015 Legearen 30. artikuluan, 7/2021 Lege Organikoaren 64.1 artikuluan edo 3/2018 LOen 75.1 artikuluan–, eta horrek interpretazio-arazoak saihesten ditu haren aplikazioan.
416. 3/2018 Lege Organikoaren 75.2 artikulua arau-haustearen preskripzioa eteteko kasu berezi bat aurreikusten du –DBEOren 60. artikuluan aurreikusitako prozedura jarraitu behar denean–, eta aurreproiektuak ez du berariaz jasotzen, nahiz eta ondoriozta daitekeen preskripzio-eperako etete-eragina izango dutela aurreproiektuaren 31. artikulua aurreikusten dituen prozedura-eteteek.
417. 26. artikulua zehapen-araubidearen mende dauden izaera juridiko-pribatuko erakundeen araubidea mugatzen du, eta, subjektu publikoak ez bezala –hurrengo artikuluan landuko dira–, isunekin zeha daitezke.
418. Xede hori –subjektu juridiko-pribatuei aplikatu behar zaien araubideaz ari dela artikulua– ongi islatuko litzateke orain «zehapenak eta neurri zuzentzaileak» aipatzen dituen xedapenaren tituluan.
419. 2. artikuluko 1. eta 2. apartatuetako subjektuen zehapen-araubide desberdina mugatzean, haien izaera juridiko pribatuaren arabera, badira zehaztasun handiagoa behar duten zenbait gai.
420. 26. artikulua horren eremu subjektiboari dagokionez, juridikoki modu seguruagoan finkatuko litzateke 27. artikuluko subjektuen zerrendaren arabera mugatuko balitz. Oraingo 1. apartatuari eustea alde batera utzi gabe, adibide gisa, garrantzitsuena da argi eta garbi finkatzea zein subjektu ez duen, inola ere, zehapen ekonomikorik jasoko, zehapen horiek arau orokorra baitira DBEOn.
421. Kontu horri lotuta, ikus daitekeenez, 27. artikulua horretako («Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioei, entitateei eta instituzio publikoei») esamoldea ez da egokiena, ez dituelako salbuesitako subjektu guztiak biltzen: hala nola talde politikoak eta zuzenbide publikoko korporazioak.
422. Egia esan, 2. artikuluko 1. eta 2. apartatuetako zerrenda hain da berezia, zaila baita guztiak biltzen dituen esamolde seguru bat aurkitzea. Horregatik, gomendagarria izan liteke subjektuen zerrenda egitea, are gehiago DBEOren zehapen ekonomikoen arau orokorrari salbuespena ezarri nahi zaionean.



423. Aurreproiektuaren 26.2 artikulua DBEOren 83.2 artikuluko eta 3/2018 Lege Organikoaren 76. artikuluko irizpideetara jotzea jasotzen du, eta, horri dagokionez, egokiagoa litzateke «jarraituko zaie» esamoldea ez baliatzea, bereziki azken artikuluari dagokionez.
424. Horren harira, Estatu Kontseiluaren 757/2017 Irizpenean gai horri buruz egindako azterketari berriro helduz, honako hau gogoratu behar da: legegile nazionalak ezin die kontrol-agintaritzei ezarri DBEOren ezarritakoez bestelako irizpide edo inguruabar batzuk edo gehigarriak aplikatzea, eta, beraz, hobe litzateke aginteraren ordeztu «kontuan hartu ahal izango dira» edo antzeko esamolderen bat jartzea, 3/2018 Lege Organikoaren 76.2 artikuluan ezarritako irizpideei dagokienez.
425. 27. artikuluan, arduradun eta eragile publikoei aplikatu behar zaien araubidea aukeratzean, aurreproiektuak hautatu du -3/2018 LOk bezala- subjektu horiei ez aplikatzea isun-sistema, eta, oro har, ohartarazpen-zehapena aurreikusten du horientzat, hargatik eragotzi gabe DBEOren 58.2 artikuluko neurri zuzentzaileak hartzea (3/2018 Lege Organikoaren 77.2 artikulua) eta kargu-hartze bat ezartzea 2. apartatuko bigarren apartatuko kasu kualifikatuetan.
426. Manuaren eremu subjektiboa identifikatzeko moduari buruz adierazitakoa alde batera utzita, 1. apartatuko bigarren apartatuan aurreikusten den jakinarazpena interesdun diren pertsonen ere egin beharko zaie.
427. Pentsa liteke zehapen-prozedura bat denez, ezin dela, berez, pertsona interesdun egon (APELen 4. artikulua), baina 1. apartatuko hirugarren apartatuak berak gezurtatu egiten du uste oker hori, honako hau baitio: «Interesdun ez den salatzaileak».
428. Egia esan, ebazpena jakinarazteko betebeharra -3/2018 Lege Organikoaren 77.2 artikuluan antzera jasoa- plus gisa baino ezin da interpretatu hierarkian gorago dagoenarekiko. Gainerakoei dagokienez, prozeduraren arau orokorraren oroigarri partziala baino ez da (APELen 40.1 artikulua). Horren arabera, nahitaez jakinarazi behar zaie hartzen diren administrazio-egintza eta ebazpenek eragiten dieten eskubide eta interesak dituzten pertsona interesdun guztiei.
429. Horrek esan nahi du ez dagoela ebazpena jakinarazteko betebeharra bakarrik, manu horretan jasotako baldintzetan; izan ere, zehapen-prozeduraren barruan hartzen diren egintza guztiak -eta ez azken ebazpena bakarrik- behar bezala jakinarazi beharko zaizkie interesdun guztiei.
430. Badirudi salatzailearen estatusa behar bezala definituta geratzen dela 1. apartatuaren hirugarren apartatuan, eta, beraz, 2. apartatuan aipatzen dena ezabatu egin daiteke.



431. 27. eta 28. artikulua batera irakurriz gero, ohartuko gara ez dela aurreikusten talde politikoetako edo zuzenbide publikoko korporazioetako zuzendariei egotz dakizkiekeen arau-hausteen argitalpenik. Subjektu horientzat ohartarazpen-zehapena baino ez da aurreikusten, ezin baita kargu-hartzearen eremuan sartu; izan ere, zehapen-neurriak direnez, aplikazio analogikoaren debekua dago indarrean (APELen 27.4 artikulua). Erregimen-desberdintasun horrek, nolana ere, justifikazioa beharko luke, EKren 14. artikulua ikuspegitik.
432. 28. artikuluko b) letran, teknikoki egokiagoa da berariaz aipatzea –a letran bezala– argitalpenak jaso behar dituen elementuak –karguaren izena eta kargu-hartze zehapena–, eta egindako arau-hausteari buruzko informazioa kasu honetan ez argitaratzea justifikatzen duen arrazoia zehaztu gabe.
433. Era berean, ez da justifikaziorik jasotzen subjektu publikoei ezar dakizkiekeen ohartarazpen-zehapenak argitara ez daitezten. Interes publikoak zereginen nagusi izan behar duenez, eta pertsona juridiko publikoen aipamena soilik argitaratuko dela kontuan hartuta, pertsona fisikoak identifikatu gabe, zehapen horiek nahitaez argitaratu behar diren artean sartzeko aukera aztertu beharko litzateke.
434. Azken eztabaidagai gisa, batzordearen ustez, komeni da iradokitzea, lehenik eta behin, bai manu bereizi batean, bai zehapenen erregulazioari ekitean, DBEOren zehapen-araubidearen espezifikotasuna jasotzea; izan ere, araubide horretan, isun-zehapenekin batera –ohartarazpenak eta kargu-hartzeak–, berariaz aurreikusten da DBEOren 58.2 artikuluko a) letratik h) letrara artean eta j) letran aipatzen diren neurri zuzentzaileetako batzuk «osagarri edo ordezeko gisa» jartzeko aukera.
435. Bigarrenik, zehapen-prozedura iraungitzeko araubidea ezartzeko aukera aurkeztu zaio organo sustatzaileari, 7/2021 Lege Organikoaren 64. artikulua ildotik.


D) IV. kapitulua.- Datuak babesteko araudia urratuz gero aplikatzeko prozedurak

436. Esan dugun bezala, hasiera batean, aurreproiektuaren eremua mugatu behar da, datuak babesteko araudia urratzeari buruzko prozedurak ezartzeko.
437. Lehenik eta behin, adierazi behar da, zehapen-araubidearekin gertatzen den bezala, lege arruntaren berezko eremua dela –«gai lotua»–, eta, beraz, 3/2018 Lege Organikoan eta 7/2021 Lege Organikoan kalifikatzen da; horrenbestez, legegile autonomikoak iritzia eman behar du eremu horretan, eta zehapen-eremuan baino erregulazio-abagune handiagoa du, DBEOk ez baititu prozedura-arau uniformeak jasotzen –gai zehatz batzuk izan ezik–.
438. Horregatik, ez dugu alde batera utziko DBEOk ezar ditzakeen aurreikuspenak eta prozedura-arauak –legegile nazionalentzat ukiezinak– kontuan hartu behar ditugula,



derrigorrez, eta ez dugu ahaztuko, halaber, lege autonomiko batean administrazio-prozedurak ezarri behar direnean, eskumen-mugaketaren arauak hartu behar direla kontuan.

439. Horri dagokionez, besteak beste, 186/2018 Irizpenean adierazitakoaren arabera, eta Konstituzio Auzitegiaren 227/1988, 98, 2001, 130/2013, 166/2014 edo 45/2015 epaiak adierazgarriak diren konstituzio-doktrinan oinarrituta, gogoratu behar da EKren 148.1.18 artikulua administrazio-prozedura erkidearen arloan duen eskumenak aukera ematen diola Estatuari, laburbilduz, honako hauek ezartzeko:
- a) Administrazio-prozedura erkidea. Horrek –Konstituzio Auzitegiak garaiz ebatzi zuenez (227/1988 KAE, azaroaren 28koa)– ahalmena ematen dio administrazio publiko guztiek beren jardura juridikoa gauzatzeko jarraitu behar duten prozedurazko iterraren egitura orokorra definitzen duten printzipioak eta arauak ezartzeko, administratuek administrazio horiekin duten harremanaren alderdi garrantzitsuetan tratamendu erkidea izango dutela bermatuz.
 - b) Administrazio-prozedura erkide berezia. Horrek –Konstituzio Auzitegiaren 130/2013 Epaian lehen aldiz erabili zen kategoria– ahalmena emango lioke Estuari administrazio publikoen jardura-mota baten berezitasunei erantzuten dieten prozedura-gidalerro batzuk finkatzeko. Orain arte dirulaguntzen eta zehapenen arloan egin da.
440. Bestalde, «arlo baten gaineko eskumen legegilea autonomia-erkidego bati eman zaionean, autonomia-erkidegoari dagokio onartzea eskumena betearaztera bideratutako administrazio-prozedurako arauak, bere eskumenen esparruaren barruan Estatuko legeek ezarritako prozedura-arauei men eginez, betiere» [33/2018 KAE, 5 b) O], honen aipuarekin: 227/1988 KAE, 32. OJ]. Gauza bera gertatzen da soilik legegintzako eta betearazpeneko eskumenak dituean; oro har, dagozkion administrazio-prozedura bereziak arautu ahal izango ditu, Estatuak, EKren 149.1.18 artikulua arabera, prozedura erkideari buruz (orokorra edo berezia) ezarritako arauen esparruan [45/2015 KAE, 6 b) OJ].
441. Esan dugunez, autonomia-erkidegoek, beren jardura-eremuan, datu pertsonalak babesteko oinarritzko eskubidearen gaineko arauak garatzeko eta betearazteko eskumenak dituzte, eta datuak babesteko sortzen diren agintaritza autonomikoek oinarritzko eskubide hori bermatzen laguntzeko lan egin beharko dute, 3/2018 Lege Organikoaren zioen azalpenak berak berariaz aitortzen duenez.
442. Eta, adierazpen horri jarraikiz, 3/2018 Lege Organikoak ezartzen duenez, «datuak babesteko araudia urratuz gero erabili beharreko prozedurak» (VIII. titulua, 63.etik 69.era bitarteko artikulua) «...Datuak Babesteko Espainiako Agentziak izapideturiko prozedura hauetan aplikatuko dira». Mezua azken xedapenetako bigarrenaren 2. apartatuan berresten da.



Berariaz jasotzen du VIII. titulu hori Estatuko Administrazio Orokorrari eta haren erakunde autonomoei bakarrik aplikatuko zaiela.

443. Beraz, printzipioz, batzordearen iritziz, Estatuak EKren 149.1.18 artikulua ondu ondorioz duen eskumenaren adierazpide gisa sar daitekeen prozedura-arau bakarra, 3/2018 Lege Organikoaren azken xedapenetako bigarrenean berariaz deklaratzeko, epeen neurketari buruzko hirugarren xedapen gehigarrian jasotakoa da, eta honela dio hitzez hitz:

Arau hauek erabiliko dira (EB) 2016/679 Erregelamenduan eta lege organiko honetan ezarritako epeak neurtzeko, alde batera utzita partikularren arteko harremanak diren edo sektore publikoko entitateekiko harremanak diren:

A) Epeak egunetan jartzen badira, egun balioudunak direla ulertuko da; beraz, ez dira zenbatuko larunbatak, igandeak eta jaiegun izendatutakoak.

B) Epea astetan jartzen bada, epearen amaierako astean hura abiaraztea eragin zuen egitatea gertatu zen egun berean amaituko da.

C) Epea hiletan edo urtetan jartzen bada, epearen amaierako hilean edo urtean hura abiaraztea eragin zuen egitatea gertatu zen egun berean amaituko da. Epearen amaierako hilean ez badago neurketaren hasierako egunaren baliokiderik, hilaren azken egunean bukatuko da epea.

D) Epearen azken eguna egun baliogabea bada, hurrengo egun balioudunera luzatuko da epea.

444. Eskumen bikoitza ezarrita –Estatukoa, prozedura erkideari buruzkoa (orokorra eta berezia), eta autonomikoa, *ratione materiae* administrazio-prozedura bereziari buruzkoa–, bi arloen arteko harremana honela lotzen da: «administrazio-prozedura erkidearen arauak lotetsi egiten dituzte autonomia-erkidegoak, eta arau horietara egokitu beharko dute beren administrazio-prozedura berezien diziplina, alegia, erkidego-mailako eskumenari dagozkion prozedurena» (110/2018 KAE, 3. OJ). Zerrenda hori une honetan APELen 1.2 artikuluan eta 129.4 artikulua bigarren apartatuan (transkribatuta dago) zedarrituta dago arauz.

445. Bi manu horiek –Konstituzio Auzitegiaren 55/2018 eta 110/2018 epaietan konstituzionaltzat jo baitira– aukera ematen dute baieztatzeko ezberdinak direla lege autonomikoaren eta erregelamendu autonomikoaren eremuak, eta, azken horren kasuan, *ratione materiae* berezitasunak hauetara mugatzen direla: organo eskudunen



mugaketa, gaiaren arabeko prozedura zehatzaren epeak, hasteko eta amaitzeko moduak, argitaratzea eta eskatu beharreko txostenak.

446. Horrenbestez, lehen aurreratutakoaren arabera, inguruabar horrek presente egon behar du aurreproiektuaren arau-dentsitateari buruzko erabakia hartzean, prozedura-erregulazioari dagokionez.
447. Hausnarketa hori DBEOren beste eskumen eta funtzio batzuk erabiltzera zabal daiteke –bereziki, ikertzeko ahalak baliatzeari buruzkoak, DBEOren 58.1 artikulua, eta zuzentzaileak, DBEOren 58.2 artikulua–, aurreproiektuak 30. artikuluan aipatzen dituen prozeduretako baten esparruan txerta daitezkeenak, baina ez nahitaez, ezta kasu guztietan ere, DBEOren manuak zerrendatzen dituen neurriak eta kasuak zabalak direlako.
448. DBEOren 58.4 artikulua berak honako hau xedatzen du: «artikulu honen indarrez kontrol-agintaritzari esleitutako ahalak egikaritu ahal izateko, nahitaez bete behar dira Batasuneko eta estatu kideetako zuzenbidean Gutunari jarraikiz ezarritako berme egokiak, barne hartuta benetako babes judiziala eta prozesuko bermeen errespetua». Eta, ildo beretik, 83.8 artikulua –zehatzeko ahala baliatzeari buruzkoa–.
449. Arestian azaldutakoari eta orain arteko praktikari jarraikiz, ukaezina da prozedura-erregulazioaren zatirik handiena erregelamenduzko gaia izango dela –gaur egun, abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretua, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa garatuko duen erregelamendua onartzen duena, eta urriaren 18ko 308/2005 Dekretua, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legea garatzen duena–.
450. Baina horrek ez du ilundu behar izapide gehigarriak ezartzeko legezko erreserba –betiere APELen 1.2 eta 129.4 artikuluek egindako mugaketaren arabera–, ezta APELek aurreikusten dituen ebazteko gehieneko epeetatik aldentzeko edo epe barruan ez ebazteak dakarren jarduerarik ezaren ondorioak zehazteko ere.
451. Balorazio hori organo sustatzaileari dagokio, eta, beraz, horri buruz egiten diren gogoeten helburua da geroko arazoak saihestea, etorkizuneko legearen erregelamenduzko garapenari ekin behar zaionean.
452. Hasierako hurbilketa hori egin ondoren, IV. kapituluaren balorazioa positiboa da. Ondorengo iruzkinak etorkizuneko legearen egikera teknikoa hobetzea helburu duten hausnarketak eta iradokizunak dira.



453. Oro har, ikusten da IV. kapitulua 3/2018 Lege Organikoaren sistematikatik bereizten dela, eta hori, printzipioz, egokia da, lege horren 64. eta 65. artikulua ez baitira teknika juridiko onaren eredu.
454. Hasteko, 30. artikulua kapituluko prozedura-arauak aplikatuko zaizkien hiru prozedura-motak ezartzen ditu:
- a) Pertsona batek erreklamazioa egiten duenean DBEOren 15. artikulutik 22. artikulura eta 7/2021 Lege Organikoaren 21. artikulutik 23. artikulura bitartekoetan ezarritako eskubideak baliatzeko bere eskaerari behar bezala erantzun ez zaiolako.
 - b) Arau-hauste bat egon daitekeela zehaztu behar denean.
 - c) DBEA agintaritzaren nagusia denean mugaz gaindiko prozedura batean.
455. Horrenbestez, berretsi egiten da aurreproiektuak ez duela inolako aurreikuspenik ezarri beharrik DBEOren 58. artikuluan zehaztutako ahal zuzentzaileak eta ikertzeko ahalak egikaritzeko prozedurei buruz, salbu eta prozedura horiek aurreproiektuko 30. artikuluko motaren baten esparruan gauzatzen direnean.
456. Adierazitakoaren arabera, batzordearen ustez, ondo aztertu beharko litzateke gai hori, erregelamenduzko garapenari ekiten zaionean geroko arazoak saihesteko –arreta berezia jarritz ebatzeko gehieneko epeei, isiluneen zentzuari eta entzunaldi- edo txosten-izapide espezifikoaren diseinuari–.
457. 30. artikulua 2. apartatua hitzez hitz egokitu beharko litzateke proiektatutako gaien biltzen diren arau-iturrien lehentasunera, eta, lehenik eta behin, DBEO aipatu beharko litzateke, Europako arauaren izaerak hala eskatzen duelako eta arau horrek zuzenean aplikatu behar diren prozedura-aurreikuspen batzuk jasotzen dituelako (adibidez, DBEOren 77., 78., 79. edo 80. artikulua).
458. Ondoren, 2. apartatua dei egiten dio «kapitulu honetan xedatuta dagoenari eta lege hau garatzeko xedapenei», eta –3/2018 Lege Organikoaren eta 7/2021 Lege Organikoaren norabide berean– administrazio-prozedura orokorreko edo erkideko arauak lehentasunez aplikatzeko arau-bloke berezi bat eratzen du.
459. 3. apartatua aurreproiektuaren 38.3 artikuluan errepikatzen da, eta azken kokapen hori sistematikoki egokiagoa da.
460. 31. artikuluan, iturriei buruzko irizpideari jarraituz gero, 1. apartatua mantendu liteke, DBEOren arabera izapidetze-epeak automatikoki etetea dakarten kasuetarako.



461. Beste apartatu batean, oraingo 1. apartatuaren hasiera bilduko litzateke, alegia, administrazio-prozeduraren araudian aurreikusitako etete-kasuei buruzkoa –une honetan, APELen 22. artikulua, hitzez hitz adierazten denez, aukerako eta nahitaezko etete-kasuak jasotzen ditu–.
462. Eta hirugarren apartatu batean, bigarren apartatuan jasotako adibideak jasoko lirateke, hau da, kontrol-agintaritza nagusia zein den zehazteko prozedurari buruzkoak.
463. 32. artikulua DBEOren ondoriozko prozedurazko berezitasunetako bat arautzen du.
464. Izan ere, azaldutakoaren arabera, Europar Batasuneko arauak «leihatila bakarraren» sistema, kontrol-agintaritza nagusiaren eta kontrol-agintaritza interesdunen kontzeptuak, lankidetzak-mekanismoak edo Datuak Babesteko Europako Komitearen esku-hartzea bera sartzen dituen kontrol-agintarien artean desadostasunak sortzen diren kasuak ebazteko, ezinbestekoa da lehen mailako eta aurretiazko fase bat ezartzea tratamendu mota –mugaz gaindikoa ala ez– eta DBEA eskuduna den egiaztatzeke.
465. Aipatu dugun bezala, aurreproiektua, 3/2018 Lege Organikoak baino ordena logikoago bati jarraituz, DBEAren eskumena aztertzeke fasearekin hasten da.
466. 32. artikulua 1. apartatua, «erreklamazio» termino orokorra erabili beharrean, «erregelamenduaren 57.1.f) artikuluan edo maiatzaren 26ko 7/2921 Lege Organikoaren 52. artikuluan ezarritako baldintzetan» egindako erreklamazioetarako eskumenari buruz ari da. Horri buruzko azalpenik gabe, printzipioz ez da ondo ulertzen mugatze horren zentzua eta erabilgarritasuna: garrantzitsuena da aurreko faseak eskatzen duen kasu bakar bat ere kanpoan ez geratzea.
467. 32. artikulua 2. apartatua, DBEAren eskumena egiaztatu ondoren garatu ahal izango diren izapideak jasotzen dira. Izapide horiek, jakina, erreklamazioa izapidetzeko ondorengo onarpen-egintzaren –edo ez onartzearen– euskarri izango dira.
468. Erregulazioa modu sistematikoagoan jaso liteke. Aukerako izapide batzuk aipatzen dira: (I) erreklamazioa tratamenduaren arduradunari edo eragileari helaraztea, erreklamazioa dagokionari –hamabost egun balioduneko epea du–; (II) arduradunak edo eragileak datuak babesteko ordezkari bat badu, «horren bidez helaraziko da», eta (III) arduraduna edo eragilea jokabide-kode bati atxikita badago, gainbegiratze-organoari helarazi ahal izango zaio erreklamazioa –hamabost eguneko epea du–.
469. Izapideak jasotzen duen aukerako izaera –«helaraz dezake»– egokia da, kontuan hartzen bada kasu batzuetan tratamenduaren arduradunak edo eragileak erreklamazioaren nondik norakoak ezagutu ditzakeela, erreklamazioaileak alde aurretik harengana jo duelako.



470. Halaber, litekeena da eraginpeko pertsonak, DBEAra jo aurretik, 3/2018 Lege Organikoaren 37.1 artikulua bidea erabili izana –organikotzat jo da–. Bertan ezarritakoaren arabera, arduradunak edo eragileak datuak babesteko ordezkari bat izendatu badu, eraginpeko pertsonak, DBEAren erreklamazio bat aurkeztu aurretik, ordezkari horrengana jotzeko aukera izango du, eta hark bi hilabeteko epean jakinarazi beharko dio erreklamazioari buruz hartutako erabakia, hura jasotzen duenetik zenbatzen hasita.
471. Era berean, manu horretan 3/2018 Lege Organikoaren 37.2 artikulua –hori ere organikoa– izapidea sartzea komeni ote den azter liteke, datuak babesteko ordezkariaren esku-hartzeari buruzkoa –«eraginpeko pertsonak datuak babesteko agintaritzaren autonomikoen aurrean erreklamazio bat aurkeztu duenean, haiek erreklamazioa bidali ahal izango diote datuen babeserako ordezkariari, hark hilabeteko epean erantzun dezan»–.
472. Nolanahi ere, irizpide uniformeak jarraitu behar da izapideen epeak egunka ezartzean. Horretarako, gogora ekarri behar da 3/2018 Lege Organikoaren hirugarren xedapen gehigarrian xedatutakoa –lehen transkribatua–; horren arabera, epeak egunka adierazten direnean, egun baliadunak direla ulertuko da, eta ez dira zenbatuko larunbatak, igandeak eta jaieguntzat jotakoak.
473. 3. atalean, eskubideak egikaritzearen ondoriozko erreklamazioen kasuan jarraitu behar den prozedura lantzen da.
474. 36. artikulua zehaztasun handirik gabeko administrazio-prozedura baten oinarriko arauak jasotzen ditu. Ez du izapide gehigarririk aurreikusten. Ebazteko gehieneko epea ezartzen du, sei hilabetekoa, bai eta 33.3 artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz izapidetzea onartzeko berariazko ebazpena eman ez denerako araua ere.
475. Manu horri dagokionez, nahitaezkoa da azken apartatuan isiltasunaren zentzuari buruz jasotzen den aurreikuspenaren arreta jartzea: «ebazteko 6 hilabeteko epea igaro ondoren, eraginpeko pertsonak ulertu ahalko du bere erreklamazioa ezetsi dela».
476. 36. artikulua alde batera utzi du bereizketa, oro har datuak babesteko araudiaren balizko urraketen barruan; besteak beste, DBEOren 15. artikulutik 22. artikulura bitartean aitortutako eskubideak baliatzeko eskaera bati ez erantzuteari buruzkoa –30.a) artikuluan jasotako bereizketa, eta izapidetzeko onartzean, 33.3 artikuluan–, eta 7/2021 Lege Organikoaren 21. artikulutik 23. artikulura bitarteko eskubideak baliatzeari buruzkoa.
477. Ondorioz, gerta daitezkeen beste kasu batzuk alde batera utzita, bi kasu horietan ebazpena sei hilabeteko epean ez jakinarazteak isiltasun negatiboa eragiten du.



478. DBEOren 15. artikulutik 22. artikulura eta 3/2018 Lege Organikoaren 21. artikulutik 23. artikulura bitartean aitortutako eskubideak baliatzeko eskaerei ez erantzuteari buruzko erreklamazioak izanik, arau-konponbideak justifikazio sendoa izan behar du –berez ikusten ez dena–, eta, beraz, are beharrezkoagoa da 3/2018 LOk isiltasunari baiespenzentzua hartzen diola berretsita (64.1 artikulua bigarren apartatua) DBEOren 15. artikulutik 22. artikulura bitarteko erreklamazioei dagokienez.
479. Egia da, azaldutakoaren arabera, 3/2018 Lege Organikoaren prozedurei buruzko aurreikuspenak (63.2) aplikatu behar zaizkiela Datuak Babesteko Espainiako Agentziak izapidetzen dituen prozedurei; egia da, halaber, indarrean dagoen 2/2004 Legearen 9.3 artikulua ezartzen duela administrazioaren isiltasunak ezetsi egiten duela DBEAri eskatutako tutoretza, aurka egiteko, atzitzeko, zuzentzeko, ezabatzeko edo datuak babesteko legeriak aitortzen dion beste edozein eskubide erabat edo partzialki ukatzen zaionean; eta, azken finean, prozeduraren oinarriko arauan jasotako administrazio-isiltasunaren egungo lege-araubideak –gaur egun APELen 24.1 artikulua– legezko araura igortzen duela haren zentzuaren finkapena.
480. Era berean, doktrina-jarrera batzuek kasu horietan ezesteko isiltasunaren alde egiten dute; izan ere, laburbilduz, tratamenduaren arduradunek edo eragileek kontrol-agintarien jarduketara okerraren ondorio negatiboak jasan behar ez dituztela uste dute.
481. Hala ere, batzordearen iritziz, arau-erabakia haztatzean, eraginpeko eskubideak –DBEOren 15.etik 22.era bitarteko artikulua eta 7/2021 Lege Organikoaren 20.etik 27.era bitarteko artikulua– betetzen duten lekuan jarri behar da foku nagusia, datu pertsonalak babesteko oinarriko eskubidearen konfigurazioan. Informazio-, atzipen-, zuzenketa-, ezabatze-, tratamenduaren mugatze-, eramangarritasun- eta aurkakotza-eskubideak erabiliz, oinarriko eskubide hori dago jokoan. Ikuspegi horretatik, APELen jarraibide orokorrak baloratu behar dira isiltasunaren zentzua legez hautatzeko (APELen 24.1 artikulua), eta ezin da ahaztu, halaber, txertatzen den prozedura osoaren diseinua.
482. Adierazitako arrazoiengatik DBEAren aurrean erreklamazio bat aurkeztu duen pertsonak tratamenduaren arduradunarengana edo eragilearengana –edo haiek izendatutako datuak babesteko ordezkariarengana– joan aurretik, hiru hilabeteko epea itxaron ahal izan du, erantzunik jaso gabe. Kontrol-agintaritzara jo du bere eskubideak babesteko. Hark hiru hilabeteko epea izan du erreklamazioa izapidetzeko onartu edo ez erabakitzeko, eta beste sei hilabete izan ditu funtsari buruz erabakitzeko. Egoera horretan, itxiera-klausula gisa ezartzen da ezen, epeak agortuta, DBEAk esanbidez ezer erabaki ez badu, aurkeztutako erreklamazioa ezetsizat joko dela.
483. Aztartzen ari garen edukiaren balorazioan, kontuan hartu behar dira, halaber, Konstituzio Auzitegiak isiltasunaren araubidearen katalogazioari buruz emandako



erabakiak, zeinek aurreko doktrina modulutzen baitute; doktrina horren arabera, labur-labur, isiltasunaren zentzuari buruzko erabakia gai baten benetako araubidea ezartzeko eskumena zuen legegilearen erabakitze abagunearen barruan sartzen zen (233/2012 KAE).

484. Hala eta guztiz, Konstituzio Auzitegiak (besteak beste, KAE hauek: 166/2014, 70/2018 edo 104/2018) orain uste duenez, ebazpena epe barruan emateko betebeharra eta horren ondorioak «administrazio-prozeduraren eredu orokorraren atal bat dira, Estatuak ere eskumena baliatuz ezar dezakeena, balorazio eta aukera politikorako beti egon behar duen abagunea baztertu gabe betiere; esate baterako, 191/2012 KAE, urriaren 29koa, 5. OJ» (166/2014 KAE, urriaren 22koa).
485. Aurreproiektuko eskubideak baliatzetik eratorritako erreklamazioetarako prozedura tipoaren diseinuari buruzko azken auzi bat dago. Aurreproiektuak zehapen-prozedurarako gordetzen ditu kautelazko neurriak.
486. Hala ere, ezin da baztertu aurreproiektuaren 30. artikulua aipatzen dituen eskubideak babesteko prozeduretan duen erabilgarritasuna eta erabilera –kontuan hartu behar da eman daitekeen ebazpenaren aseguramenduarekin duen lotura–, izapidearen egungo konfiguraziotik ondorioztatzen den bezala administrazio-prozedura erkidearen araudian (APELen 56. artikulua).
487. Kapituluaren 4. atalak zehatzeko ahala egikaritzeko prozedura du aztergai, eta 37. artikuluekin hasten da (aurretiazko jarduketak). Artikulu horren edukia 3/2018 Lege Organikoaren 67. artikuluenaren antzekoa da, eta, bertan, jarduketa horiek zehapen-prozedura bat hasi aurreko urrats gisa ere taxutzen dira.
488. Interpretazio-arazoak saihesteko, teknikoki hobe litzateke formula bera erabiltzea 36.3 artikuluan eta 37.2 artikuluan *dies a quo* finkatzeko orduan, baldin eta izapidetzeko onartze-egintza epearen barruan eman ez bada.
489. Hasteko erabakia eta ebazteko gehienezko epea (bederatzi hilabete) arautzen dituen zehapen-prozeduraz dihardu 38. artikulua, eta gainerako alderdiak EAEko administrazio publikoen zehatzeko ahala arautzen duen araudira igortzen ditu. Hori igorpen egokia da.
490. Era berean, egokia da 38. artikulua horrek aurreikusten duen babesa, DBEA agintaritzaren nagusia (40. artikulua) edo agintaritzaren interesduna (41. artikulua) den mugaz gaindiko tratamenduetarako prozedura bereziari dagokionez. Orobat, teknikoki irtenbide positibotzat jotzen da gainerako prozeduretatik bereizita arautzea; izan ere, prozedura berezia da, eta DBEOk berriazko erregulazio zehatza du haren inguruan (DBEOren 60. artikulua).



III ARAUGINTZA-TEKNIKAKO GOGOETAK

491. Apartatu honetan, zenbait ohar egin dira, teknika aldetik arau-produktu onduagoa lortzearren, eta, beraz, segurtasun juridikoaren printzipioari (EKren 9.3 artikulua) hobeto egokitzen zaiona.
492. Oro har, gogorarazten dugu, araugintza-teknikaren arloan, lege-proiektuak, dekretuak, aginduak eta ebazpenak lantzeko jarraibideetara egokitu behar duela proiektuak. Jarraibide horiek Jaurlaritzaren Kontseiluaren 1993ko martxoaren 23ko Erabakiaren bidez onartu ziren (1993ko apirilaren 19ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu ziren, 71. zenbakian, Lehendakaritza, Lege Araubide eta Autonomi Garapen sailburuaren 1993ko apirilaren 6ko Aginduaren bidez), eta XOEPLren hirugarren xedapen gehigarriaren arabera aplikatu daitezke.
493. Proiektaturiko arauaren azalpen-zatiari dagokionez, komeni da aipatzea, esleituta duen funtzio nagusiaren arabera, bere xedearren eta helburuaren deskribapena jaso behar duela; eta proiektaturiko erregulazioaren alderdi garrantzitsuenak nabarmendu behar ditu, hobeto ulertzeko. Halaber, komenigarria litzateke, EHAren 10.2 artikuluko eskumenaz gain, aruari eskumen-euskarria ematen dioten gainerako eskumen-atribuzioak aipatzea.
494. Helburu hori bete egiten da aurreproiektuan txertatutakoaren kasuan, baina organo sustatzaileari honako iradokizun hauek aurkezten zaizkio iritzia eman dezan.
495. I. epigrafearen zortzigarren paragrafoan, abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa aipatzen denean, eta «oinarrizko legea den aldetik» aldatu beharko litzateke, ez baitu izaera hori.
496. II. epigrafeko bigarren apartatuan, I. epigrafeko seigarren apartatuan azaltzen den mezua errepikatzen da.
497. II. epigrafeko laugarren apartatuan, eremu subjektiboa deskribatzean, teknikoki zehatzagoa da Eusko Legebiltzarreko legebiltzar-taldeei, lurralde historikoetako Batzar Nagusietako batzarkide-taldeei eta udal-talde politikoei buruz hitz egitea (Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 34. artikulua, ETEL).
498. Gaztelaniazko bertsioko II. epigrafeko zazpigarren paragrafoan «En segundo lugar, quedan sometidos» dioen lekuan, «las entidades» esamoldearekiko konkordantziari eustearren, «En segundo lugar, quedan sometidas...» jarri beharko luke.
499. III. epigrafeko lehen paragrafoaren espainolezko idazketan, zuzenagoa da «sino también a su régimen» jartzea «sino en su régimen», «no solo afecta» esapideari lotuta badago.



500. III. epigrafeko hamabigarren paragrafoko lehen esaldian, gaztelaniazko bertsioan, «otra serie de funciones» esapiderearen arabera jokatzeko, aditza singularrean deklinatu behar da («se regula»).
501. IV. epigrafean, bigarren paragrafoan, «modu oso orokorrean bada ere» esamoldea kentzea har liteke kontuan, DBEOren zehapen-araubidearen balorazioa ez baita guztiz zuzena.
502. Hurrengo apartatuan, «zenbait isun-zehapen» aipamena aurreproiektuak igorri behar dituen zehapen horien Europar Batasuneko jatorria –eta aginduzkoa– islatzeko moduan adierazi beharko litzateke, ez baitu inolako berrikuntzarik aurreikusten horri dagokionez.
503. V. epigrafean, bederatzigarren paragrafoan, komenigarria izango litzateke «konponketa» ordez «berrezarpena» jartzea.
504. VI. epigrafeko 4. apartatuan, mezua osatzea falta da adierazteko horrek ez duela Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren Kontseilu Aholku-emaileko kideen kargu-uztea ekarriko.
505. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 22.2 artikulua betez, egokia litzateke azalpen-zatiaren amaieran bertan ezarritako nahitaezko txostena sartzea.
506. Xedapenen atalari dagokionez, lehenik eta behin nabarmendu behar da lan handia egin dela proposatutako testua idaztean hizkera ez-sexista erabiltzen saiatzeko.
507. Oro har, komenigarria litzateke artikuluko batzuen barne-egitura berrikustea (adibidez, artikuluko hauena: 2.1, 5.2, 7.1, 8.3 eta 4, 10, 14.1, 16.2, 17.4, 20, 27, 1 eta 2, 30, 2, 31.1, 32.1 eta 2, 33.2, 36.3, 39.1 edo 41.2). Arauen egikera tekniko hobetzen laguntzen du –erraztu egiten du operadore juridikoen erabilera, aipua, barne-igorpenak eta, hala badagokio, aldaketak– artikuluen barne-antolaketa honako arau hauetara egokitzeak: artikuluko bakoitza apartatuta banatzen da, eta apartatu horiek kardinal arabiarrekin zenbakitu behar dira, bakarrik dagoenean izan ezik. Eta apartatuek, saihestezina denean, paragrafoak izan ditzakete. Apartatu berean apartatu bat baino gehiago sartu behar badira, ez dira zenbakituko.
508. Hala ere, testuaren barne-egitura birpasantzean, komeni da teknika juridiko onaren arauak kontuan hartzea. Horietako batek artikuluko luzeegiak saihestearen alde egiten du, eta, nolatan ere, artikuluko bakoitza gai batera, apartatu bakoitza enuntziatu batera eta enuntziatu bakoitza ideia batera bideratzea zehazten duen irizpide sistematikoari jarraitzea.



509. Aurreproiektuaren zenbait artikulutan komenigarria da adierazpen arruntago, argiago eta zehatzagoa idazten saiatzea, eta edukiaren zehaztapenik ez emateaz gain, arauaren mezua korapilatzekeo arriskua dakarren oro saihestea, haren zentzua eta irismena ez dadin ilundu. Irizpide horien arabera, 32. artikulua, azken mezuaren, 33. artikulua edo 34.1 artikulua oraingo idazketa berrikus daiteke.
510. Orokorrean, arau guztiak aipatzeko, haien izenburu ofizial osoa erabili behar da.
511. Dena den, kasu honetan, Europar Batasuneko arauen eta bi lege organikoen tituluaren luzera dela eta, honako irtenbide hau onar liteke: lehenengo aipua osoa izan beharko litzateke (adibidez, 1.1 artikuluan), eta hurrengoetarako, laburragoa –aurreproiektuan bezala–, betiere xedapenen atal osoan zehar mantentzen bada.
512. Ostera, arau orokorrari jarraitu behar zaio Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes-Gatazkak Arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legearen aipuan (8.5 artikulua). Osorik aipatu behar da, zenbaki eta data eta guzti.
513. 3.1 artikulua bigarren apartatua formulazio arruntagoa jotzea iradokitzen da: nahikoa litzateke zehaztea DBEAren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko harremana Lehendakariak arloei buruzko dekretuan zehazten duen sailaren bidez izango dela.
514. 5.2 artikulua, apartatu bereizietan joan daitezkeen mezuak sartzen dira, dagokien zenbakiarekin.
515. Komenigarria litzateke 7.1 artikulua sistematika berrikustea, hirugarren mezua lehenengoarekin lotuta dagoelako. Adierazitakoaren arabera, bigarrena ere behar bezala zenbakitutako apartatu bereizi batean joan daiteke.
516. 7.2.a) artikulua, gaztelaniazko bertsioan, «adoptasen» ordez «adopten» idatzi beharko litzateke.
517. 8.3 artikulua, agian, zuhurragoa litzateke Eusko Legebiltzarraren batzorde zehatz bat ez aipatzea, eta adieraztea batzorde eskudunean aurkeztuko dela; izan ere, Legebiltzarreko batzordeen izendapenak aldatu egin daitezke etorkizunean, eta, hala, aldaketa horiengandik babestuko da araua.
518. Aurreproiektuaren 9.1 artikulua, Jaurlaritzari eta lurralde historikoei buruzko aipamenak osatu egin behar dira «EAEko» zehaztuz.
519. 2.1) artikulua bezala, Euskal Herriko Unibertsitatea izen ofizialarekin izendatu behar da aurreproiektuaren 9.1.f) eta 20. artikuluetan.
520. 10. artikulua, 14. artikulua aipatzen denean, «lege honen» erantsi behar da.



521. 11.4 artikuluaaren mezuak, *in fine*, 5.3 artikuluaarena errepikatzen du, eta azken kokapen hori litzateke egokiena sistematikoki, DBEAko langileen araubide orokorra zehazteaz arduratzen baita. Egungo 5.3 artikuluan, ordea, gehitu likete DBEAko funtzionarioen isilpekotasun- eta sekretu-betebeharraren lege-araubidea txertatuko lukeen «baita kargua utzi ondoren ere» oharra.
522. 17. artikuluan, abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren azken xedapenetako laugarrenera igorri behar da.
523. 32.1 artikuluaaren bigarren paragrafoaren adierazpena argiagoa, arruntagoa eta zehatzagoa izango litzateke, gaztelaniazko bertsioan, gainerako testua bezala, subjuntiboko orainaldian idatziko balitz –«...a quien resulte competente cuando aprecie que la competencia corresponde a otra autoridad de protección de datos...de otro Estado miembro de la Unión Europea que ostente la condición de.....»–.
524. 34.1 artikuluan, «Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen zehatzeko ahalari buruzko araudian» aipamena zalantzarazkoa da beharbada, asistematiko samarra izaki, manua, oro har, edozein motatako erreklamazioak ez onartzeko kasuak mugatzen ari baita.
525. Lehen xedapen gehigarriak oinarritzko kalifikazioa administrazio-prozedura arautzen duen Estatuko araudira mugatu beharko luke.
526. Lehen adierazitakoaren arabera, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren egungo Estatutua arautzen duen arauaren aipua, lehenengo xedapen iragankorrak jasotzen duena, osoa izan behar da (309/2005 Dekretua, urriaren 18koa, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren Estatutua onartzen duena), eta, gaztelaniaz, «adoptare» ordez «adopte» ipini beharko litzateke.
527. Bigarren xedapen iragankorraren idazketa teknikoki hobea izango litzateke honelako edo antzeko formulazio batekin: «dagoeneko hasita dauden edo data horren aurretik garatutako aurretiazko ikerketa-jarduketan ondorioz hasitako prozedurak».
528. Gaztelaniaz, testuaren azentu-markak berrikustea komeniko litzateke, erakusleen arauari arreta berezia jarritz. Espainiako Errege Akademiak (RAE) erakusleetan azentu-markarik ez jartzea aholkatzen du, anbigutasunak saihesteko ez bada –determinatzaile gisa jokatzeko badute, «solo» adberbioarekin bezala–.
529. Era berean, letra larrien erabilera berrikusi eta zenbakiak adierazteko irizpidea bateratu daiteke –digituen bidez edo letren bidez–, batzuetan biak berdina erabiltzen baitira, adibidez, aurreproiektuaren 36.3 artikuluan, epeak aipatzean.
530. Amaitzeko, testua berrikustea gomendatzen dugu, puntuazio-zeinuak –komak, puntuak eta abarrak– egoki erabilia daudela egiaztatzeko.



ONDORIOA

Batzordeak emandako irizpenaren arabera, Datu Pertsonalak Babesteari eta Datuak Babesteko Euskal Agintaritzari buruzko Legearen aurreproiektua, behin irizpen honen mamian egindako oharrak aintzakotzat hartutakoan, Jaurlaritzaren Kontseiluari aurkeztu ahal izango zaio, onespena eman dezan.

Eta hala ziurtatzen dut, Vitoria-Gasteizen, sinaduraren datan, batzordeburuaren oniritziarekin, jakin eta kontuan har dadin. Era berean, azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 30.2 artikulua xedatzen duen betebeharra gogorarazten dizugu: batzorde honi komunikatu behar zaio azkenean onartutako xedapena edo ebazpena, Antolamendu eta Funtzionamenduaren Erregelamendua onartzen duen irailaren 12ko 167/2006 Dekretuaren 34. artikulua xedatzen duen moduan eta epean.

Ontzat emana:

Jesús María Alonso Quilchano,
Idazkaria

Lehendakaria

Haren ordeaz, azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 9.4.b) artikulua
arabera.

Xabier Unanue Ortega, lehendakariordea